

Barrena



Lehorrekoen abentura Atlantikoan

Pantalankide dituen
lagun nafarrekin Atlantikoa
zeharkatu du Ander Zabala
elgoibartarrak,
belaontzi batean / 2

Ander Zabala, bere bi abenturakideekin: Joseba Altuna eta Ramon Zorrakiain. LAGATAKOA.

AZPIEGITURAK

Hastear dute gorpuzkiak Amillagatik Artzabalera aldatzeko bidea

Ekainaren 1ean hasiko dute
Deban hilerri zaharrean
ehortzitakoak hilerri berrira
eramateko prozesua / 25



NEREA BEDIA LAUNETA ALKORTA

JAIK

Trinitate jaietan murgilduko dira asteburuan Elgoibarren eta Mendaron

Azoka, danborradak eta sokamuturra izango dituzte Elgoibarren,
besteak beste, eta kalejirak, erromeria eta bertsoak Mendaron / 7

MERKATARITZA

Hil honen
amaierarako bi saltoki
txiki itxiko dituzte
**Soraluzen: Ecenarro
eta Belarrak / 21**



UBANE MADERA ZANGITU

JAIK

**Debako Zurrunbilo
Ur Kirol Elkartek
25 urte bete ditu, eta
egun osoko festa
egingo dute bihar / 26**

ELKARTASUNA

**Javi Alberdi
memorial
solidarioa egingo
dute bihar,
zapata, Ermuan**

Goizean goiz hasi eta hamabi
orduan Urkora joan-etorrian
ibiliko dira, minbiziaren
kontrako borrokan
laguntzeko / 17



EMILIO JOSÉ CARRAL



laz Elgoibarren egindako danborradako argazki bat. ASIER ORBEA

MENDIA

**Mendizaletasunaren
jaia ospatuko dute
bihar Mendaron,
bigarren urtez:
Mendi Eguna / 15**



AINARA ARGOITIA

GURE 20. URTEURRENA
ospatzen

0 OLAIA MARTINEZ
ESTETIKA ZENTROA

2006tik 2026ra, 20 urte zuekin.

Gaur, maiatzak 29, 17:30etik 19:30era,
zatoz gurekin ospatzera!
Opariak, zozketak eta Malape tabernaren
eskutik lunch ezin hobea izango dugu.
Mila esker bihotzez!

Trenbide kalea, 21 behe, esk. - Elgoibar

943 242 805



"Sekulako abentura izan da Atlantikoa zeharkatzea"

ANDER ZABALA

ITSASGIZONA

Zumaian dauka belaontzia Ander Zabalak, eta pantalankide dituen bi nafarrekin Atlantikoa zeharkatu du; domekan iritsi ziren etxera

Ainhoa Andonegi

Lehorrekoa da Ander Zabala, baina zainetan darama itsasoa ume-umetatik. 24 urtera arte makina-erremintaren sektorean aritu bazen ere, aire zabalean lan egin nahi zuela erabaki zuen. Ordutik hona, itsasoa du afizio eta ofizio. Titulu ofizialetarako eskolak ematen ditu, eta ahal duen guztietan nabigatzera iritetzen da. Azken abenturan Atlantikoa zeharkatu du, pantalankide dituen Joseba Altuna eta Ramon Zorrakia in nafarrekin.

Atlantikoa zeharkatu duzue belaontzian; nola abiatu zenuen abentura hura?

Abentura hau, berez, nire pantalankideena izan da. Zumaian daukat belaontzia, eta abarborrean eta istriborrean bi nafar ditut: Joseba Altuna eta Ramon Zorrakia. Bururatu zitzaieen ehun egunean 10.000 milia egitea: Zumaiatik irten, Karibera joan eta berriz Zumaiara itzuli. Aspaldiko lagunak gara, eta ni ere gonbidatu ninduten, baina lan-kontuengatik ezin izan nuen abentura osoa egin. Ni apirilaren 14an joan nintzen, hegazkinez, Karibera, Guadalupeko irlara. Gau bat han bertan egin genuen lo, eta hiru egunez ibili ginen hango irlatan. Antigua eta Barbudan izan ginen, eta apirilaren 18an irten ginen Karibetik, Azoreetara.

Zenbat egunez egon zineten lurra zapaldu gabe?

23 bat egunean iritsi ginen Horta, Azoreetara. Lurrik ez zapaltzea gustatzen zaigu gehien guri! Hiru gau egin genituen han, eta aprobeztatu genuen hozkailua betetzeko eta belaontzian konponketatxoak egiteko, eta handik hartu genuen Galizia alderako bidea. Domekan iritsi ginen Zumaiara, uste genuena baino beranduago, azken etapen

belaontziaren helizearekin arazotxo bat izan genuelako.

23 egunez, hiru lagun belaontzian, lurrik zapaldu gabe; nola kalkulatu duzue jateko kopurua?

Justuan ibili gara, egia esan. Belaontziak toki mugatua dauka, eta, Karibetik ondo beteta abantatu baginen ere, gauza asko bukatu egin zitzaizkigun. Azoreetara iristeko oraindik hamar bat egunen faltan, barazki eta fruta freskoa agortu egin zitzaigun. Poteko janaria bakarrik geneukan. Eskerrak arrantzan abilak garen! Hegaluzearen familiako 45 kiloko arrain bat arrantzatu genuen, eta horri esker ondo moldatu ginen.

100 egunean, 10.000 milia; lortu al duzue helburua?

Bai! 98 egun izan dira guztira. Sekulako abentura izan da! Belaontzian ibiltzen garenontzat Atlantikoa zeharkatzea izan ohi da ametsa, eta nik Azoreak ere bisitatu nahi nituen. Beraz, Atlantikoa zeharkatu eta Azoreetara iritsi; bi amets batean bete ditut. Nire pasioa bela izan da ume-umetatik.

Dena espero bezala joan da ala izan duzue ezustekorik?

Ez dugu ezustekorik izan, baina, eguraldiaren ondorioz,

"Belaontzian Atlantikoa zeharkatu eta Azoreetara iritsi; bi amets batean bete ditut"

"23 egunetarik, bost bakarrik izan dira eguraldi txarrekoak; ezin gara kexatu"

tarteka atzera ere egin behar izan dugu, eta astebete gehiago behar izan genuen Azoreetara iristeko. Horregatik bukatu zitzaigun jatekoa uste baino lehenago. Pare bat ekaitz gogor eta zenbait egunetan olatu handiak ere izan ditugu, baina 23 egunetarik bost bakarrik izan dira eguraldi txarrekoak. Ezin gara kexatu.

Zenbat ordu ematen zenituzten eguraldi-iragarpenari begira?

Denbora pila bat! Gustatu egiten zait gai hori, gainera, baina nabigatzeko ezinbestekoa da. Ikusten bagenuen gure bidean boraskaren bat zegoela edo haizea noranzkoz aldatuko zela, noranzkoa aldatzen genuen guk. Oso garrantzitsua da hori.

Hiru lehorreko gizon, itsasoan; ederra abentura!


Bai. Joseba eta Ramon nafarrak dira, eta ni, Elgoibarkoa, baserrikoa. Zumaian ezagutu genuen elkar. Nire aitaren akademian atera zuten haiek titulua, eta portuan elkarren ondoan ditugu ontziak. Esnatzear bat ikusten ditudan lehenengo pertsonak dira. Oso ondo konpontzen gara.

Nondik datorkizu itsasoarekiko zaletasuna?

Aita lekeitiarra dut, kapitaina izan zen, eta etxean beti izan dugu txaluparen bat. Umetatik ibilia naiz ni itsasoan, eta oporetan amamaren etxean ere asko egoten nintzen, Lekeition. Gogoratzen dut galerna egunetan nola ikusten nuen belaontzi bat itsasoratzen! Beti amestu izan dut itsasoarekin, eta, bereziki, belaontziarekin. Elgoibartarra izanda, 24 urtera arte makina-erremintaren sektorean aritu nintzen, baina leku itxietan lan egitea ez zitzaidan gustatzen. Atera nituen beharrezko titulua, eta itsasoan hasi nintzen lanean. Askotariko lanak



Ander Zabala, erdian. LAGATAKOA



Ander Zabala, izarrei begira. LAGATAKOA

egin ditut, baina duela urte batzuk itsasoa lagatzea erabaki nuen. Orain, akademia daukat Elgoibarren, eta eskolak ematen ditut. Jende asko etortzen da

inguruko herrietatik titulua ateratzera, eta, tarteka, nire ikasleak nabigatzen ikusten ditut; horrek poz handia ematen dit.

Ainhoa Andonegi DEBABARRENA

Debabarreneko ikastetxeek ikasturtean zehar zientziaren eta teknologiaren arloan egindako proiektuak biltzen ditu *We Make Debabarrena!* STEAM erronkak, eta horien arteko lehiaketa egiten dute ikasturtea amaitzerako. Aurten, eskualdeko zazpi ikastetxeek parte hartu dute erronkan, eta guztira hamahiru esperimentu aurkeztu dituzte, antolatzailen esanetan. Honako hau da parte hartu duten ikastetxeen zerrenda: Learreta Markina HLHI Mallabia, San Lorenzo HLHI, AMAÑA HLHI, Samiela Eskola, Anaitasuna, Elgoibar Ikastola eta Eibarko Aldatze. Sari-banaketa ekitaldia Elgoibarko Aita Agirre Kulturgunean egin zuten joan den astean.

Debegesa Debabarreneko Garapen Agentziak antolatzen du eskualdeko ikasleentzako erronka hori, eta, garapen agentziako ordezkarienez gainera, Elgoibarko alkate Maialen Gurrutxagak, epaimahaikidea izan den IMHko Iratxe Gonzalezek eta erronkaren babeslea izan den Laboral Kutxako Leire Askasibarrek ere hartu zuten parte ekitaldian. Alain Zulaika



Sari-banaketan parte hartu duten ikasleak. ASIER ORBEA

Elgoibarren banatu dituzte 'We Make Debabarrena!' STEAM erronkako sariak

Eibarko eta Mallabiko ikasleak saritu dituzte aurtengo ikasturtean

Niala mago elgoibartarrak gidatu zuen saioa, eta zientziarekin eta teknologiarekin lotutako magia-ikuskizuna egin zien ikasleei. Eskualdeko 60 bat ikasle bildu ziren aurkezpenean, eta, magiaz gozatzeaz gain, ikas-

le batzuek magoarekin parte hartzeko aukera ere izan zuten.

Irabazleak

Erronkako arduradunek azaldu zuten, bi irizpide erabili dituzte aurten irabazleak aukera-

tzeko: alde batetik, esperimentuak jasotzen zituzten bideoen ikustaldiak zenbatu dituzte, eta horrek %25eko pisua izan du azken erabakian; eta, bestetik, epaimahaikideek irizpide jakin batzuk kontuan hartuta banatu

dituzte puntuak. Horren guztia- ren baturatik atera dira irabazleak; honako hiru hauek, hain zuzen ere:

- LH3-4: Learreta Markina HLHI Mallabia: *Birziklon*.
- LH5-6: Learreta Markina HLHI Mallabia: *Aztarna Txikiagoa*.
- DBH1-4: Aldatze Eibar: *Aldaketa klimatikoa 5 esperimentutan*.

Egitasmoaren helburuak

Antolatzailak azaldu dutenez, *We Make Debabarrena!* STEAM erronkaren helburuak honako hauek dira: ikasleek eta zentrokek STEAM bokazioak sustatzeko egiten duten ahalegina erakustea eta STEAM hezkuntzaren garrantzia nabarmentzea.

Era berean, eskerrak eman dizkiete ekimenean parte hartu duten ikasleei, prozesuan erakutsitako "gogo eta kemenagatik"; epaimahaikideei ere bai, erronkan zehar egindako lanagatik zein STEAM arloen balioa nabarmentzen eman dieten laguntzagatik; eta, azkenik, Laboral Kutxari, ekimena babesteagatik: "Euren laguntzarik gabe ezinezkoa izango litzateke ekimen hori aurrera ateratzea".

Ekainaren 13ko Euskaltzaleon Martxarako autobusa antolatu dute Debabarrenetik

Iruñean izango da Euskaltzaleon Martxa, 17:00etan hasita

Ainara Argoitia DEBABARRENA

Euskalgintzaren Kontseiluak ekainaren 13an Iruñean egingo duen Euskaltzaleon Martxa ekitaldira joateko autobusa antolatu dute Debabarrenetik. Elgoibarko Izarra, Elgoibarko AEK euskaltegia, Debabe Udal Euskaltegia, Elgoibarko Udala, Elgoibar Ikastola, Herri Eskola, Arreiturre Guraso Elkarte, Meka LHII eta IMH Campus, Debako Zuhatza Euskara Elkarte, Mendaroko In Leike kultur elkarte, Eibarko AEK eta Sorraluzeko Pil-Pilean Euskaltzaleon Elkarte dira antolatzailak, eta ekainaren 5a da izena emateko azken eguna. 15 euro ordaindu behar dira.

Euskaltzaleon giharra

Azken hamarkadetan "berreskurapen-ziklo bat" gertatu den arren euskararen etorkizunaz

kezkatzeko arrazoiak egon badaudela azpimarratu dute deitzaileek, ikerketa ezberdinen ondorioak aintzat hartuta. Era berean, euskararen biziberritzearen kontrako "oldarraldi antolatu baten zantzuak" ageri-agerikoak direla diote, eta horren guztia- ren kontra indarrak batzera deitu dute, uste dutelako aurrerapausoak lortzeko babes instituzionala ez ezik indar sozial antolatua eta herritarren inplikazioa ere behar-beharrezko direla. Hala, "euskaltzaleon giharra" indartzeko dei egin dute.

Euskaraz bizitzeko behar dena izango du lelo martxak, eta egungo larrialdi linguistikotik indarraldira igarotzeko premia gizarteratzea eta pizkunde berri baterako txinparta sortzea izango ditu helburu. Antolatzailak jakinarazi du-



Martxarako kartela. KONTSEILUA

tenez, hiru puntutan batuko dituzte herritarrak, 17:00etan, eta hiru zutabe osatuko dituzte gero; Gazteluko Plazan elkartuko dira denak, azkenean. Zutabe bakoitzak pizkunderako ezinbestekoak diren hiru

oinarrietako bana ordezkaturako du: ofizialtasun osoa Euskal Herriko lurralde guztietarako; jautzia hizkuntza politikan, "euskararen ezagutza orokortuko duten politiken eta erabilera normalerako baldintzak sortuko dituzten neurrien alde"; eta euskaltzaleen edo euskaltzaleak elkarrekin antolatzaren premia.

Izen-emateak

Izena eman nahi duenak hemen dauzka horretarako bideak: Elgoibarko Izarra: 943 74 16 26 / elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus; AEK euskaltegia: 607 60 14 23 / elgoibar@ae.eus. Udal Euskaltegia: 943 74 27 31 / udaleuskaltegia.elgoibar@debabe.eus; Elgoibarko Udala: 943 74 43 66 / euskara@elgoibar.eus; Elgoibar Ikastola: 943 74 44 41 / elgoibar@elgoibarikastola.eus; IMH: 943 74 41 32 / euskara@imh.eus; Pil-pilean Euskaltzaleon Elkarte: 601 60 23 47 / pilpilean@pilpilean.eus; Mutrikuko euskaltzaleak: 657 73 24 90; Debako Zuhatza 613 92 01 73; Mendaroko In Leike mendaroninleike@gmail.com; Eibarko Eta Kitto euskara elkarte: 943 20 09 18;

Gipuzkoako Elikagaien Bankuaren janari bilketa, 5ean eta 6an

Udaberriko janari bilketa kanpaina ekainaren 5ean eta 6an egingo du Gipuzkoako Elikagaien Bankuak. Kanpainaren helburu nagusia elkartasun-sarea indartzea izango dela jakinarazi dute, familia askok elikagai horien beharra dutelako. Gipuzkoako merkataritza-kate gehienetako establezimenduetan egingo dute bilketa, eta dohaintzak egiteko bidea ere zabaldu dute: 00090 (Bizum) edo bancodelalimentos-gipuzkoa.org.

Iazko bi kanpaina handietan herritarrek emandako erantzun onari esker, "egonkortasun bati" eutsi ahal izan dio azken hilabete hauetan Elikagaien Bankuak, eta horretarako bereziki lagungarria izan zaie iaz herritarrek bonu solidariorien bidez egin zituzten dohaintza ekonomikoak. Azken hilabeteotan lortu dute familia bakoitzari hilabeterako ematen dioten kilo kopurua apur bat handitzea, baina horri eusteko ezinbestekoa dute "gizartearen inplikazioa".

NIRE USTEZ

Egutegia



ANGEL UGARTEBURU
IRAKASLE OHIA

Frantzian (1792) izandako errebolaren harira, gure iparraldean bizi-bizia izan zen *xurien* (eliztarren) eta *gorrien* (errepublikazaleen) arteko eztabaida. Orduko aldizkari eta egutegietan ere argi ikusten da lehia hori. Xurien esan eta idatzietan *apaiz-jaleak* ziren gorriak, hauentzat xuriak *santu-jaleak* ziren bezala. Aldizkari eta egutegiak egokiak ziren nork bere doktrina eta ideologia zabaldu eta bestearena gutxiesteko.

Hegoaldean, dakigunez, 1815ean eman zuen argitara Jose Pablo Ulibarrrik lehen *Egutegi eusquerascoa*. Geroztik, asko izan dira euskal baserriar zein kaletarren informazio-premia egutegi bidezko euskara errazean betetzeko ahaleginak.

Horma-egutegiak eta takoak, aproposenak eta erabilienak. Hala ezagutu genuen etxean, urtez urte, potolo-potolo hasi eta, egunean orri bat galduz, argaltzen zen *Arantzazuko Andre Mariaren Egutegia*. Euskaldun askorentzat, santu-santa, ilargi, itsas mareaz aparte, igande bakoitzeko ebanjelio, euskal atsotitz, ipuintxo eta txistez hornituriko orritxo haiek izan ziren lehen alfabetatze eskola. *Mensajero* aldizkariaren itzalean ere atera zuten geroago jesuitek; gazteleraz, lehenik; eta gero, euskaraz ere bai.

Gurean kortako ganaduentzat ere erabilgarria izaten zen egutegiko orritxoak. Behia noiz *umesketu* (ume+eske) zen edo idizkoak noiz *estali* zuen gogoan hartzeko, han jartzen zen orri hori, bere askaren ondoan. Behia *altan*, araldian (ar+aldia) zegoenean esaten zen *umeske* zegoela eta etxeko zein auzoko arrak -idizkoa edo zezena- modu naturalean estal zezan hurbiltzen genuen harengana. Asto emearekin ere gauza bera egiten genuen, astarrarengana hurbildu.

Gero etorri zen xiringa bidezko ziztadaz egiten den *intseminazioa*, XX. mendearen azken tertzioan. Gaur, ganaduzaleak berak erraz asko egiten du *hazi-jartze* edo intseminazio hori. Horren harira, entzuna dut baserriar batek nola deitu zion orduan herrian zuten telefono publiko bakarretik, denek entzuteko moduan, Berrizko albaitari erdaldunari:

"*Veterinario! Que venga a Mallabia, caserio Goitxa, para hacer exhibicion a la vaca*".

Barregarria bezain ulergarria. Ez da, gero, broma bat-batean luzera horretako hitz bat ondo esatea!

Jaioberriei izenak jartzeko orduan ere eragin handia izan zuten egutegi-tako horiek, baina horrek beste atal baterako ematen du.

GUTUNAK

Umeentzako jaki-ontzietan milaka mikroplastiko!

A.I.Z.

ELGOIBAR

Greenpeacek egindako ikerketaren arabera, Danoneren eta Nestleren umeentzako janari-ontziak milaka mikroplastikoz kutsatuta daudela jakin berri dut. Bertan zehazten denez, plastikotan bildutako haurtxoentzako elikagai horiek polimero sintetikoaren sarbide handia dira. Horietako elikagai-errazio bakoitzak 11.000 mikroplastiko-partikula izan ditzake.

Norvegiako SINTEF Ocean institutuak eskatu dio Greenpeacekeri ikerketa egiteko, eta honek *pouches* izeneko poltsa malguetan saltzen diren ontziak aztertu ditu. Orain arte, jaki horiek nagusiki beirazko ontzi txikietan saldu izan dira. Azken urteetan, ordea, poltsatxo malgu horiek zabalkunde handia izan dute eta dagoeneko mundu-mailako merkatuaren %37 hartzen dute.

Danonek eta Nestlek ontzi mota horretan saltzen dituzten purean, zukuan eta jogurtean dauden mikroplastiko kopuruak ikertu dira, eta ondorioak oso kezagarriak dira.

1. Nestlek Gerber markarekin saltzen dituen produktu horietan gramoko 54 mikroplastiko-partikula atzeman ditu. Horrek esan nahi du 100 gramoko anoa

batean 5.000 partikula baino gehiago daudela.

2. Happy Baby Organics da gisa bereko produktuak saltzen dituen Danoneren marka, eta horietan mikroplastikoen kopuruak handiagoak dira. Sei hilabeteko umeentzako bildutako ahi eta pure ontzi malgu horietan 99 mikroplastiko-partikula daude gramoko, 496 koilaratxo bakoitzeko, eta poltsa osoan 11.000tik gora egon daitezke.

Ondorioa: ontzi horien diseinuagatik, plastikoa eta elikagaien kontaktu-azalera oso handia da, eta kontuan hartuta fruituen azidotasuna eta esnekien grasa kopurua, horrek errazten du ontziaren partikulak elikagaira joatea.

Ikerketari buruzko informazio gehiago eskuratu nahi baduzue, *El Salto*-k landutako artikulua honetan irakur dezakezue: elsaltodiario.com/plastico/greenpeace-particulas-microplastico-comida-bebes-nestle-danone.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). BARRENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Aita Agirre Kulturgunea 3-3, 20870 Elgoibar / barrena@barrena.eus

Barrena[®]

DEBABARRENEKO KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea
Barrena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Aita Agirre plaza, 3
20870 Elgoibar
barrena@barrena.eus

Lehendakaria
Gaizka Azkarate.
Zuzendari nagusia
Egoitz Unamuno.
Eduki arduraduna
Ainara Argoitia.

Erredakzio batzardea
Ainara Argoitia, Ubane Madera,
Ainhoa Andonegi, Izaro
Aulestiarte.
Kazetariak
Ainara Argoitia, Ainhoa
Andonegi, Alex Turrillas, Ander
Gomez, Asier Orbea, Egoitz
Unamuno, Izaro Aulestiarte,
Nerea Bedialauneta, Ubane
Madera.
Diseinu arduraduna
Oier Larreategi.
Zuzentzailea
Sergio Azkarate.
Kidetzak eta banaketa
Alex Turrillas.
Maketazioa
Zaloa Arnaiz, Oier Larreategi.
Publizitatea
Leire Rubio.

HARPIDETZA
Elgoibar 20870
Aita Agirre plaza, 3
943 74 16 26
harpidetza@barrena.eus

PUBLIZITATEA
Elgoibar 20870
Aita Agirre plaza, 3
943 74 16 26
publi@barrena.eus

DEBAKO EGOITZA
Deba 20820
Ifar Kalea 12, behea
943 19 13 83

ELGOIBARKO EGOITZA
Elgoibar 20870
Aita Agirre plaza, 3
943 74 41 12

ERMUKO EGOITZA
Ermua 48260
Erdikokale 2, 1
943 17 93 50

SORALUZETIKO EGOITZA
Sorluze 20590
Errabal 15, 1
943 75 13 04

Lege Gordailua: LG D 993-2025
ISSN: 3101-2647
Tirada: 10.500 ale
Inprimategia: Zeroa Multimedia

BARRENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK



Debako Udala



Elgoibarko Udala



Ermuko Udala



Mallabiko Udala



Mendaroko Udala



Mutrikuko Udala



Soraluzetiko Udala



ZABALIK

Geoparkea Debabarren osora zabaltzeko eskaera

Bihar amaituko da Europako Geoparkeen Astea, eta horren baitan idatzi du iritzi-artikulu hau Angel Maria Tobajasek, Morkaiko-Leizarpe espeleologia taldeko kideak. Haren ustez, Euskal Kostaldeko Geoparkeak Debabarren osoko herriak hartu beharko lituzke bere baitan



ANGEL MARI TOBAJAS
MORKAIKO-LEIZARPE
ESPELEOLOGIA TALDEKOA

Geodibertsitatea kontzeptua 2008an entzun nuen estreinakoz, eta, gainera, nire harridurarako, Debabarrenari aplikatua. Kontzeptu horren sortzaile Jose Francisco Santos EHUko katedradun eibartarrari entzun nion, non eta Fosilen eta Mineralen Elgoibarko Museoa. Debabarreneko geodibertsitatea aldarrikatu, ikertu, ezagutarazi eta babestu beharraz aritu zitzaidan. Santosek beharrezkotzat jotzen zuen gure eskualdeko geodibertsitatea ikertzeko eta haren dibulgaziorako zentro bat eraikitzea, ikertzaileei eta, oro har, interesa izan zezaketan guztiei eskainia.

Ezin ezkuta dezaket Debabarreneko geodibertsitatea ezagutzeak nigan sortu duen lilura. Espeleologo gisa beti izan dut interesa geologiarekiko, eta, bereziki, karstologiarekiko, baina egun hartatik aurrera beste begi batzuekin erreparatu izan diot gure inguruko paisaia ikusgarriari, bai eta geologiari ere. Hori esanda, gehienok ulertuko duzue zerk eraman nauen *Debabarreneko paisaia eta paraje bereziak* eta *Mundu harrigarria* liburuak idaztera. Debabarreneko geodibertsitateari egindako ekarpen xumea dira bi lan horiek, Santosek Elgoibarrera egindako bisitari zor dizkiodanak.

Elgoibarko MuFoMi

Debabarreneko geodibertsitatearen berri izanda, ez ninduen harritu gure eskualdean geoparke bat sortu nahi izateak. Munduko gauzarik logikoena iruditu zitzaidan. Hala ere, jakin nuenean geoparkeak kostaldeko flyscha eta karstaren zati bat baino ez zituela hartuko, iruditu

zitzaidan oso motz gelditzen zela; are gehiago, *geodibertsitatea* kontzeptua aipatzen zutenean. Nola zitekeen Debabarrena erdia baino gehiago kanpoan uztea? Gure ustez, planteamendu kontraesankorrekin abiatu zuten proiektua, eta denborak, arrazoiak eman digu.

Hala eta guztiz ere, hasiera batean Euskal Kostaldeko Geoparkearen proiektuan Karstaren Ibilbidea agertzen zenez Flyscharen Ibilbidearen ondoan, iruditu zitzaigun geoparkea onuragarria izan zitekeela Debabarreneko karst osoarentzat. Harrigarria bada ere, eta beti gure espeleologomentalitatek erreparatuta, oso etsigarria egin zitzaigun, beraz, Mendarok Euskal Kostaldeko Geoparkean sartzeari uko egitea, uste baikenuen aukera paregabea galtzen zela karsta aldarrikatzeko, bai eta Unescok geoparke bati aitortzen dion balizko babesa eskuratzeko ere. Egia esan, Mendaroko karstak eta Lasturko ibar itsuaren goiko erdiek badute babes halako bat, lurpeko urak babesteko Uraren Europako Agentziak ematen duena. Uraren Europako Agentziak dio giza kontsumorako ur-hartune guztiek dagokien babes perimetroa izan behar dutela. Horrek zehazten du babestu beharreko eremua zein den, zeintzuk diren hartu beharreko babes neurriak eta nola arautu behar diren eremu horietan egiten diren jarduerak guztiak, ur emariari eta uraren kalitateari kalterik ez egiteko.

Beraz, teorian, Mala, Kilimon eta Tantortako akuiferoek beren babes perimetroak izan behar dituzte, handik hornitzen direlako edateko urez Debabarreneko lau udalerrri: Elgoibar, Mendaro, Mutriku eta Deba –eta Itziar–. Herri horien baitan daude, jakina, beren auzuneak, industrialdeak, bai eta eskualdeko ospitalea ere; Mendarokoa,

alegia. Horregatik, ez dugu ulertzen babes perimetro horien barruan egiten ari diren baso-sartzeak, azkar hazten diren espezie exotikoz betetzen ari direlako ingurua. Ez dugu ulertzen, ezta ere, Lasturko harrobia martxan egotea, frogatua dugunean haren azpitik igarotzen dela Tartorta akuiferoa, Itziar osoa urez hornitzen duena. Akuiferoa kutsatu eta ur emaria gutxitzen ari da hor, akuiferoa elikatzen duten kareharria galtzen ari den heinean. Hori bai, ikus dezakegunagatik edo, hobeto esanda, behatu ezin dugunagatik, harrobia lurpean ari dira ustiatzen, eta horrek eragotzi egiten du harrobi horren benetako eragina zenbatekoa den ikustea. Praktikan, jardun diskretu edo kamuflatu hori itxuraz legezkoa da, eta horregatik gaude derrigortuta une oro karstaren ikusezintasuna salatzea, askotan lur azalean eta denon bistara egitera ausartuko ez liratekeen jarduera ez-legezkoak justifikatzeko balio duelako ikusezintasunak.

Geoparkearen balioa

Denborak aurrera egin ahala eta ikusita geoparkea benetan zer izan den Debabarreneko eta, bereziki, gure karstarentzako, gero eta zalantza handiagoak dauzkagu haren eraginkortasunaz. Are gehiago: maila praktikoa egiaztatzen ari garena da gehien hondatzen ari den karst

"Mendarok nahitaez parte hartu behar luke karstaren ibilbidea osatzen"

"Kritiko gara Geoparkearekin, ekarpen txikia egiten diolako Debabarrenari"

zatiak geoparkearen baitakoa dela. Kontrara, gero eta argiago dugu Debabarren osoa barne hartuko lukeen balizko geoparke bat estrategikoa litzatekeela gure eskualde ia erabat industrializatu honen osagarritzat. Konbentziturak gaude gure lurpeko urak zaintzea derrigorra dela gure bizirauteko. Esaerak dio jaten ematen diguten gauzekin ezin dela jolastu, eta nik gehituko nuke: urarekin, are gutxiago.

Geoparkean sartzeko eskaera

Euskal Kostaldeko Geoparkearen historian kapitulu berri bat zabaldu zen 2024an, Mendaroko Udalak bertan sartzeko eskatu zuenean. Kasu horretan, Mendarorentzako baino aukera hobea iruditu zitzaidan Deba eta Mutrikurentzat, Mendaro sartuta, Karstaren Ibilbidea garatzeko aukera izango luketelako. Begi-bistakoa dirudi Mendarok nahitaez parte hartu beharko lukeela geoparkearen Karstaren ibilbidea osatzen, Mendaro delako Debabarreneko karstaren atea. Aizkoltxo kareharrizko muinoa da ate hori, azken bi hamarkadetan Debabarreneko erreferente karstiko eta arkeologiko handiena bihurtu dena. Harrigarria bada ere, bi hektareako industrialdea eraikitzeko lautu nahi zuten muino hori da Debabarreneko karstaren atea, eta hantxe bertan dagoen kobazulo batean dago Madeleine aldiko aztarnategi arkeologikoa. Ikuspegi geologiko, espeleologiko eta arkeologikotik, beraz, Euskal Kostaldeko Geoparkeko Karstaren Ibilbidearen abiapuntuak hortxe behar luke. Aitortuko dut, baina, ez dirudiela Mendarok erraza izango duenik geoparkean sartzea, izenak berak ere kanpo uzten baitu, kostaldeko herria ez izateagatik. Nolanahi ere, ez dugu uste Mendarok

2024an egin zuen eskaerarentzako erantzunik jaso duenik oraindik.

Bien bitartean, geoparkeak 2010ean hasitako biderei jarraitzen dio, eta ordutik gertatu den aipagarriena Zumaiaiko flyschean grabatu diren filmak izan dira. Flyscha da maila turistikoan eta herrikoian ospe handiena duena. Gehien-gehienek *Game of Thrones* pelikulatik edo *Ocho apellidos vascos* filmetik ezagutzen dute. Gehixeago dakitenek dinosauroak galdu ziren garaiarekin lotuko dute, edo KT mugarekin –Kretazeoa-Tertziarioa– edo KP mugarekin –Kretazikoa eta Paleogenoa–. Geoparkera egindako bisita biribiltzeko, Zumaian itsasontzia hartu eta itsasotik erreparatu ahal izango diogu flyschari. Horixe da Euskal Kostaldeko Geoparkera datozen bisitariak jarraitzen duten ibilbidea, baina hori kilometro bateko apendiz txiki bat baino ez da, Debabarrenetik kanpora dagoena eta eremu karstikorik ez duena. Horrek badu azalpena: Deba eta Mutriku arteko flyschera iristea ez dela hain erraza, eta horrek eramaten gaitu pentsatzera geoparkea gehiago dela zumaiaarren kontua.

Esandakoak esanda, garbi geldituko zen kritikoak garelako Euskal Kostaldeko Geoparkeaz; batez ere, oso ekarpen txikia egiten diolako Debabarreneko eskualdeari eta kostaldeko turismoa bultzatzera baino ez datorrelako. Geoparkearen definizioak dio: *Geoparkeak balio handiko ondareak mugatutako lurraldeak dira, zeinak babes-ikuspegi holistikoa baten arabera kudeatzen diren*. Beraz, argi dago Debabarreneko geodibertsitateak beste geoparke eredu bat merezi duela, udalerrri guztiak barne hartuko dituen eta bere ondare askotarikoak sustatuko dituen, lurralde osoan zehar ikus daitekeen geodibertsitate berezia izendatzaile komuntzat hartuta.

OSASUN GIDA

RPS 271/12



ainhoa
Hortz eta Erretinista

Jausoro plaza, 6 behea - Elgoibar

943 531 953
669 565 745



fisiomás
Fisioterapia neurrala eta
Kirol Herriopakitza



RPS 127/02

Trenbide kalea, 13
943 740 191 / 667 903 609
www.fisioma.com

Jeku edero
hortz klinika

RPS 171/12

Elena Herrero Lobo
Alta Agirre Erparantzia, 5 - Elgoibar

943 530 053



aldaz
hortz klinikak

RPS233/13

943 366 377

San Bartolome, 22

NATUR HOUSE
Ainara Iriondo Ansola

GIZA ELKADURAN ETA
DIETETIKAN DIPLOMATUA

RPS 203/16

Torbio Etxebarria, 22
Eibar

677 551 850



DEBA
SURF
IPAR

Surf

EKAINAK 22
IRAILAK 6

UDAKO ESKOLA IPARREN

SURF IKASTAROAK
SURF ETA SURF SKATEKO KANPUSAK
PADDLE SURF IKASTAROAK
MASTER SURFA

IZEN EMATEAK
627 325 135





EIBAR
IPAR
INDOOR

Skate

EKAINAK 22
IRAILAK 6

UDAKO ESKOLA IPARREN

SKATE & ROLLER
KANPUSA ETA INTENTSIBOAK
IPARNETA
TAILERRAK ETA BESTE JARDUERA ASKO

LABORAL KUTXA
%50
IRAZKETA

IZEN EMATEAK
670 51 35 02





**Udan kazetaritza
praktikak
egin nahi dituzu
Barrenan?**

Kazetaritzako edo
publizitateko ikaslea
baldin bazara,
uztailean eta abuztuan
Barrenan
praktikak egiteko
aukera duzu.

**Curriculuma
bidaltzeko epea:
ekainak 12**

605 706 086
barrena@barrena.eus



Herriko eragileek dena prest dute asteburuan Trinitate jaiak ospatzeko

Feria, danborradak eta sokamuturra izango dira, besteak beste

Ainhoa Andonegi

Jai-giroa ekarriko dute asteburuan Elgoibarrera Trinitate jaiak. Herriko hainbat eragile-ren artean osatu dute egitaraua, eta, urtero bezala, asteburu bete-betea prestatu dute. Bihar goizean hasiko dira jaiak, Elgoibarko baserrietako azoka bereziarekin: batetik, herrian bertan ekoiztutako produktuak erosi eta dastatzeko aukera egongo da; eta, bestetik, hemengo baserrietan hazitako animaliak jarriko dituzte ikusgai. Horrez gain, Elgoibarko baserrietako sagardo lehiaketa antolatu du aurten ere Zazpiki elkarteak, eta eguerdi parte horretan Lumagorri eta Basaxerri kalitatezko oilasko eta txerriak dastatzeko aukera egongo da Lekuederren. Bien bitartean, Egur arte-tailerraren eskutik aire zabaleko marrazki lehiaketa egongo da martxan.

Arratsaldea Mauxitxa txarangak girotuko du, eta gauean danborhotsak izango dira nagusi, Atabal taldeak antolatzen duen nagusien danborradan. Aurten, Latuna Bando txarangak jarriko du musika danborradan. Hain zuzen ere, 200 lagunetik gora irtengo dira, eta, urtero bezala, mikeleteak, artilleroak, gastadoreak, danbor eta barrika joleak eta sukaldariak irtengo dira, besteak beste. Kultur Etxe aurrean hasiko dute ekitaldia, eta San Bartolome eta Errosario kaleetatik iritsiko dira Kalegoen plazara. 00:00ak arte plazan bertan joko dituzte kantuak, eta ondoren kalejiran irtengo dira, San Bartolome kaletik Maalaraino. Euria egiten badu, Maalan egingo dute ekitaldi osoa.

Horren harira, Atabal elkarteak kartel lehiaketa antolatu zuen danborrada iragartzeko; hama-



lazko umeen danborrada. AINHOA ANDONEGI

bi lagunek hartu dute parte, eta Alba Rey Migales izan da irabazlea. Danborradaren egunean jasoko du saria.

Domeka eguerdian umeek hartuko diete helduei erreleboa, eta Inazio Bereziartua musika eskolako ikasleak arituko dira danbor eta kupelei danbaka, eta karroza ikusgarri batek zeharkatuko ditu kaleak. Umeen danborradak kaleak zeharkatzen dituen bitartean, artisau azoka egongo da Lekuederren, eta arratsaldean

erraldoi eta buruhandiak irtengo dira kalera.

Sokamuturra, Maalan eta Kalegoen plazan

Trinitate jaien berritasun nagusia izan zen iaz sokamuturra, eta aurten ere Udalak mantendu egin du egitarauan. Domekan egingo dute trinitateetako sokamuturra, 08:00etatik 10:30era, Saka ganadutegiko abereekin. Udalak hiru sektoretan banatzen du sokamuturraren ibilbidea: lehen sekto-

rea –Maala ingurua–, bigarren sektorea –Kalebarren plaza– eta hirugarren sektorea –Kalegoen plaza–. Oraingoan, baina, Maalako sektorean eta Kalegoen plaza inguruko sektorean askatuko dituzte zezenak eta bigantxak; izan ere, erdiko sektorea, Kalebarren plazaren bueltakoa, ez dago erabilgarri, obregatik. Lehenengo sektorean 08:00etatik 09:00etara izango da sokamuturra eta hirugarrengoa, 09:00etatik 10:30era.

Azoka eta aldarrikapena uztartu ditu Altzolako Auzo Elkarteak

A.A.

Maiatzeko azken zapatuko feria egin zuten joan den zapatuan, eta, oraingoan, Altzolako Auzo Elkarteak kudeatu du txosna. Elgoibarko

harategietako produktuekin osatutako pintxoak saltzeaz gain, tren geltokiaren aldeko aldarria ere eraman zuten kalera antolatzaileek; izan ere, Eusko Jaurlaritzak Al-

tzolako tren geltokia kenduko zuela jakin zutenetik borrokan ari dira, eta 5.568 sinadura bildu dituzte Altzolako tren geltokia mantentzeko. Txosnan, bestalde, herriko produktuekin osatutako otarre bat zozkatu zuten, eta jakinarazi dute zerbaki irabazlea: 72



Azokan ere, tren geltokiaren alde. ALTZOLAKO AUZO ELKARTEA

EXPRESS ESKAINTZAK!
JVC 32VDH2500 TELEBISTA
149 €
 32"
 ● 32 pulgada
 ● Smart TV VIDAA OS
 ● HDR 10
 ● Dolby Digital +
 ● 3 HDMI
 ● USB



MILARBIRE
 Ubitarte, 11 - 943 741 487
 bire@milar.es
 Dendako prezioak. Produktuak agortu arte

TERXYPUR®
LAGUNAK
 colchonaria textil hogar




1-Stretch ehuna / 2-Polester zuntza
 3-Soja natural ez-transgenikoaren biskoelastika
 4-Polesterra / 5-Ehungintza TB
 6-Soja natural ez-transgenikoaren biskoelastika
 7-Soja natural ez-transgenikoaren Terplus nuklea
 8-Platabanda / 9-Ehungintza TB / 10-Polesterra
 / 11-Polester zuntza / 12-3d ehun irristagailza

Moldagarria, transpiragarria, termoaldakorra, ergonomikoa, presioaren aurkakoa, alergiararen aurkakoa eta akaroen aurkakoa

San Roke kalea, 20 - ELGOIBAR - 943 744 457 / 685 756 978
 www.textillagunak.com

Barrena
 GEBABARRENEKO KOMUNIKAZIO TALDEA
 943 743 704
 688 769 657

Jarri ezazu zure publizitatea **BARRENA** astekarian edo
www.barrena.eus
 webgunean

Festa giroan hasiko dute Mintxetako uda denboraldia, ekainaren 13an

Akuatloia, DJ saioa eta kaleko dantzen emanaldia antolatu dituzte

Ainhoa Andonegi

Ekainaren 13an hasiko dute uda denboraldia Mintxetan, eta egun horretan ez da sarre-rik ordaindu beharko. Irekiera eguna ospatzeko, gainera, hainbat ekintza antolatu dituzte: 10:00etan, akuatloia egingo dute, Elgoibar Igeriketa Taldekoek antolatuta; 12:00etatik 14:00etara, DJ Titaren musika saioa izango da; eta arratsaldean, 17:00etatik 18:00etara, dantza urbanoen txanda iritsiko da.

Abonuen prezioak

Denboraldi osorako Mintxetako igerilekuetako abonuen prezioak ere aurkeztu dituzte: banakako abonua 100,90 euroko prezioa du 18 urtetik beherakoentzat eta 111,75 eurokoa 18 urtetik gorakoentzat; familia-abonua 223,50 euro

balio du eta familia gurasobakarrarenak, 156,45 euro; 60 urtetik gorako jubilatuak 102,00 euroko banakako abonua dute, eta 185,55 euroko familia-abonua; ikasleentzako abonua 100,00 eurokoa da; eta behar

bereziak dituzten pertsonentzakoak, 100,90 eurokoa. Modu puntualean joatea nahiago dutenentzat, berriz, eguneko sarrerak 4,50 euro balio du 18 urtetik beherakoentzat eta 6,50 euro 18 urtetik gorakoentzat.



lazio denboraldiko argazki bat. A.O.

San Bartolome jaietarako kamiseta lehiaketa antolatu dute

A.A.

Elgoibarko Udalak, Atxutxia-maikarekin lankidetzan eta Egur Arte Tailerraren, Udal Ludotekaren eta Gaztelekuaren parte hartzearekin, San Bartolome jaietako Umeen eta Nerabeen egunetako kamiseten irudi lehiaketa antolatu du. Jai egun horiek abuztuaren 27an eta 28an ospatuko dira, hurrenez hurren.

Umeen Eguneko lehiaketa Elgoibarren eskolaratutako Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzenduta dago, eta Nerabeen Eguneko, berriz, herriko DBHko ikasleei. Irudiek dagokien eguna irudikatu behar dute, eta trazua bakarrik izan dezakete, betegarrik gabe. Irudiarekin batera, gutun-azal batean, izen-abizenak eta harremanetarako telefono zenbakia idatzi behar dira.

Lanak posta elektronikoz bidali daitezke, aisia@elgoibarkoizarra.eus helbidera, edo Elgoibarko Izarrak Aita Agirre kulturguneko hirugarren



Umeen Egunean. ASIER ORBEA

solairuan duen bulegora eramanean. Marrazkiak aurkezteko epea ekainaren 8an amaituko da, egun hori barne.

Informazio gehiago: www.elgoibarkoizarra.eus eta 943 74 17 46 telefonoan.

Argiztapen publikoa hobetzeko lanak egingo ditu Udalak alde zaharrea

LED sistema ezarriko dute 43 argi-puntutan: San Frantzisko, Errosario eta San Bartolome kaleetan eta Foruen plazan

A.A.

Alde zaharreko argiak LED sistemara egokitzeko lanak hasiko ditu Elgoibarko Udalak hil honetan. 43 argi-puntutan egingo dute esku-hartzea: San Frantzisko, Errosario eta San Bartolome kaleetan eta Kalegoen plazan. Lanek hamabost eta hogeita egun artean iraungo dute eta 17.911 euroko inbertsioa egingo dute argiteria hobetzeko –BEZ barne–.

Elgoibarko Udalak adierazi duenez, argiztapen berriak uniformetasun handiagoa eta argiaren banaketa hobea ahalbidetuko ditu; hala, itzal-guneak ezabatu eta kaleetan eta plazetan argitasuna "nabarmen" hobetuko da. Horretarako, argi epela erabiliko dute –3000 K–; modu horretan, alde zahararen izaerari eutsiko diote, eta indarrean dagoen araudiari egokituko zaio argiteria. Kalegoen



Argiak aldatzen. A.O.

plazan ahalegin berezia egingo dute argiteriaren bitartez elizaren ingurunea nabarmentzeko. Sistema berri horrekin energia-kontsumoa %14 inguru murriztuko dela uste dute udal arduradunek.

Tximeletak ezagutzeko irteera antolatu dute ekainaren 7rako

Gure Natura Ezagutzen egitasmoaren barruan antolatu dute irteera Baso Biziak, Morkaikok eta Atxutxiamaikak

A.A.

Morkaiko Mendizale Elkartek, Elgoibarko Baso Biziak elkarteak eta Elgoibarko Izarraren Atxutxiamaika aisialdi taldeak elkarlanean garatzen duten Gure Natura Ezagutzen egitasmoaren barruan, tximeletak ezagutzeko irteera antolatu dute ekainaren 7rako, Elgoibarko Udalaren babesarekin. Arantzazura joango dira, autobusez. 10:00etan elkartuko dira, Txankakuako autobus geltokian, eta 17:00 aldera etorriko dira bueltan. Bisitan zehar inguru hartako tximeletak ezagutzeko dituzte, eta gidari-lanak Zerynthia elkarteko Iker Novoa Fariñasek egingo ditu, euskaraz.

Irteeran parte hartzeko, izena eman behar da, eta antolatzaileek aurreratu dute plazak mugatuak direla. Helduek 10 euro ordaindu behar dituzte –bazkideek, 9 euro–; eta umeek, 5 euro –baz-



Tximeleta bat. ANDER IZAGIRRE

kideek, 4 euro–. Izena emateko, helbide honetan dagoen formularioa bete behar da: <https://labur.eus//GNE26>.

Mendirako arropa eta oinetako proposak eramatea gomentatu dute, eta jatekoa eta edatekoa norberak eramanean beharko du etxetik, mendian bazkaltzeko asmoa dute eta.

Hainbat ekintza antolatu dituzte Bat Egin Egunaren harira

Elgoibarko EH Bilduk hainbat ekintza antolatu ditu, aurtengo Bat Egin Egunaren harira, EH Bilduren bueltako komunitatea sendotzeko. Antolatuak esan dutenez, Euskal Herriaren nazio-izaera eta burujabetza aldarrikatu nahi dituzte, eta adierazi dute EH Bildu prest dagoela datozen erronkei aurre egiteko, komunitatearekin batera. Hori guztia egitarau baten bueltan ondu dute. Ekainaren 3rako hitzaldia antolatu dute; Nerea Kortajarena izango da hizlaria, 19:00etan, Aita Agirreko areto nagusian. Ekainaren 5ean, berriz, Iñaki Labakak kontzertua emango du, Maalako parkean, 20:30ean. Eta hurrengo egunean, herri bazkaria egingo dute, Kimetz elkartearen. Bazkarirako izena emateko, 618 68 09 40 telefonora deitu edo Bilgunetik pasatu behar da. Nahi duenak bazkari begeterianoa eskatzeko aukera ere izango du.

A.A.

Joan den maiatzaren 23an, *Parapan* lursaila inauguratu zuten Elgoibar Ikastolako komunitateko hainbat kidek, Felix Etxeberria *Parapan* zenaren omenez. Elgoibar Ikastolako sortzaile eta sustatzaileetako bat izan zen Etxeberria, euskaltzalea eta Ikastolaren proiektuarekiko erabat konprometitutako pertsona. Haren ondarearen zati bat Elgoibar Ikastolari laga zion dohaintzan, eta txukundu eta inauguratu egin dute. Ikastolako ordezkariak adierazitakoaren arabera, lursail hura utzi izanak aukera paregabea eskaini die etorkizunera begirako espazio berezi bat eraikitzen hasteko.

Goizeko lehen orduan elkar-tu ziren ikastolako kideak, eta oinez egin zuten lursailerainoko bidea. Ondoren, inaugurazio-ekitaldiari ekin zioten. Etxeberriaren etxeok ere hartu zuten parte ekitaldian; tartean, Arantza alabak. Bertan izan ziren hitzak eta bertsoak, besteak beste, eta oroigarri moduan jarritako plaka bera bistaratu zuten. Ekitaldiaren baitan, zuhaitz bat landatu zuten, etorkizunarekiko konpro-



Lursailaren inaugurazio-ekitaldiko irudi bat. ELGOIBAR IKASTOLA

'Parapan' lursaila inauguratu du Elgoibar Ikastolak Muskirutzuko lurretan

lurkurutzetara igo ziren, '50 tontor' egitasmoaren barruan

misoaren, sustraien eta komunitatearen sinbolo gisa: "Keinu xume baina esanguratsua izan zen, lursailari eman nahi dio-

gun bizitasunaren eta jarraipenaren adierazle". Ikastolako arduradunek adierazi dute une hunkigarriak bizi izan zituz-

tela, komunitatearen eta belaunaldien arteko loturaren adierazgarri: "Eguraldi bikainak eta giro apartak lagunduta,

goiz ederra partekatzeke aukera izan genuen naturan, emozioz eta esanahiz betetako ekitaldi batean".

Muskirutzuko lursaila etorkizunean ere bizirik mantentzeko eta hezkuntza, natura eta komunitatea uztartuko dituen espazio bihurtzeko asmoarekin dihardu Ikastolak, eta zapatukoa lehen urratsa izan zela adierazi dute: "Lehen urrats hau, zalan-tzarik gabe, berezia eta esanguratsua izan da". Eskerrak eman dizkiete ekitaldira bertaratu zirenei eta ekimena posible egin duten guztiei.

'50 tontor'

Inaugurazio-ekitaldiaren ondoren, mendi buelta txiki bat egin zuten han inguruan. Sargoate aldetik Irukurtzetarako bidea hartu zuten, Kilometroak jaiaren barruan antolatuta dute *50 tontor* egitasmoaren barruan. Izan ere, aurtun, Kilometroak jaiaren 50. edizioa ospatuko dute, Lazkaon, eta urteurrena ospatzeko ekintzen barruan prestatu dute ekimena, Gipuzkoako ikastolen komunitatea eta sustraiak naturarekin lotzeko.

Oinezkoentzako pasabidea egiteko hitzarmena sinatu dute Udalak eta Euskal Trenbide Sareak

Obra aurtengo urtea amaitu aurretik hasiko dute, eta 1.800.000 euroko aurrekontuarekin Eusko Jaurlaritzak finantzatu du osorik

Ainhoa Andonegi

Elgoibarko Udaleko osoko bilkurak oniritzia eman dio Udalaren eta Euskal Trenbide Sarearen arteko hitzarmenari. Horri esker, San Pedro auzoa eta Urruzuno kalea elkartzeko obrak hasteko moduan egongo dira, eta, Udalak aurreratu duenez, urtea amaitu aurretik hasiko dituzte obrak. Proiektua dagoeneko idatzita dagoela azaldu dute, eta hurrengo pausoa obra lizitaziora ateratzea izango da. Igogailu horri esker San Pedro auzoaren irisgarritasuna asko hobetuko dela uste du Udalak.

San Pedro kaleko parke zaharra dagoen gunean jarriko dute igogailua, eta, modu horretan, San Pedro auzoa eta Urruzuno parkea lotuta geratuko dira. Horrez gain, San Pedro auzoko parkea espaloien mailara

jaitsiko dute. Horrek espaloi zabalagoa egitea ahalbidetuko du, eta plaza txiki bat egiteko baliatuko dute espazio berria. Igogailuaz gain, komun publiko bat ere jarriko dute. 1.800.000 euroko aurrekontua dauka

obrak eta Jaurlaritzak finantzatu du osorik. Elgoibarko Udalak aditzera eman du erakundearen arteko lankidetzari esker egingo dela obra hori, eta garrantzia eman diote elkarlan horri.



San Pedro auzoko parkea. ASIER ORBEA

Bizilabe eta Robotika eskoletan izena emateko epea zabaldu dute

Ekainaren 19ra arte eman daiteke izena; gero, plaza librerik geratzen baldin bada soilik eman ahal izango da

A.A.

Elgoibarko Udalak Robotika eta Bizilabe programetan izena emateko epea zabaldu du. Bi programak 2026ko urritik 2027ko maiatzera egingo dituzte, eta, funtsean, helburu izango dute zientzia alorreko jakin-mina elikatzea, ikaskuntza sustatzea eta sormenari tartea ematea.

LH1 eta LH4 arteko ikasleei Robotika programa eskaintzen diete, eta ikasturtean zehar robotak, bideo-jokoak eta bestelako asmakizun teknologikoak sortu eta programatzeko aukera izango dute, Lego Wedo, Mindstorms, Makeblock, Arduino, Scratch, Unity eta Tinkercad tresna didaktiko eta teknologikoak erabilia. Saiok astearteetan edo ostiraletan izango dira, 17:30etik 18:30era, IMHn.

LH5 eta DBH4 arteko umeentzat, berriz, Bizilabe programa prestatu dute Udalak eta Elhuyarrek, elkarlanean, eta esperimenduak eta talde-lanean oinarritutako proposamenak garatuko dituzte bertan, profesionalak gidatuta. Esperientzia osatzeko, eskualdeko enpresak eta ikerketa-zentroak bisitatuko dituzte eta sektoreko emakume profesionalekin harreman zuzena izango dute. Saiok IMHn izango dira, asteazkenetan eta ostegunetan.

Izena emateko epea ekainaren 19ra arte egongo da zabalik, eta hilaren 22tik aurrera, berriz, libre geratutako plazak bete ahaliko dira. Robotikarako, doplay.es/robotika-dibertigarria/ helbidean eman behar da izena; eta Bizilaberako, form.jotform.com/261031477375356 helbidean. Zalantzak argitzeko, 943 74 10 50era deitu daiteke.

NIRE USTEZ

Probetxua**EDURNE IZAGIRRE**
PSIKOLOGOA

Niri sekula ez zait gustatu Monopoly. Lanean dugun inplikazioaren arabera izaten dela etekina ikasi nuen, baina baita naturan denbora egoten artaldeari begira, musika entzunez edo irakurtzen ere. Espekulazioa ulertzea bera kostatzen zait: gaur zerbaitea urteetara gehiagoan saldu ahal izateko ez da neuregan onartzen dudana logika bat. Ezta neure diskurtsoa eta arreta erlazioari atera nahi diodan etekinaren arabera moldatzea ere. Benekotasunak askatasun sentipena ematen digun bitartean, besteak espero duela uste dugunaren arabera jokatzeko izugarriko energia

galtzea dakar, eta interakzio hori hutsala egingo zaigu guztiz.

Baliozko subjektuak izan nahian, denborari probetxua ateratzeko etengabeko gurpilean gabiltza biraka, zerbaitetan ari garen sentipena izatearren, denbora galtzeak ezerezean uzten gaituen sinesmenarekin. Baina logika hau soltatzeko astirik gabe gabiltzanez, erlazioetara eramaten dugu; erlazioak ere interesen arabera, probetxuzko denbora elkarbanatzeko eta momentuko gogoaren arabera kontsumituz. Honela, kirol

"Denborari probetxua ateratzeko etengabeko gurpilean gabiltza biraka"

lagun-taldea, parranda lagun-taldea, guraso lagun-taldea sortzen dugu... baina osotasunean ezagutzen gaituen norbait ba ote da bertan? Geure burua ezagutzera iritsi ote gaitzke honela? Erlazioak zatituz eta hainbat rol eraikiz.

Ni neu izatea ez al da nahikoa denbora eta espazioa gorpuzteko? Barrenak eskatzen didan lekuan, benetan betetzen nauten pertsonekin egotea bera ez ote, ba, probetxuzkoa? Ez ote du nahikoa balio sozializazio merkatuan?

Egotea, izatea, arnastea, topatzea, gozatzea ez al dira ekintza ederrak? Egindakoen zerrendan ibilbide ikusgarri bat egintzan markatzea baino betegarriagoa? Ez ote du horrek kotizatzen erlazioen merkatuan? Nork zehazten ditu merkatu horren irizpideak eta nola sartu dira gure barrenean?



SEMAFORO

Altzola txukuntzeko beharra

"Altzolako hilerriko hormak jausita daude eta ingurua sasiz beteta dago. Bizilagunak ibiltzen dira hori txukuntzen. Udalak badauka asmorik hori txukuntzeko?". BARRENAk Udalera jo du, eta ondorengo erantzuna eman du Hirigintza arduradunak. "Joan den astean auzo osoan egin ziren belarra mozteko, sasiak kentzeko eta berdeguneak txukuntzeko lanak, kanposantu ingurua barne. Aurreko asteetan, gainera, auzoaren garbiketa orokorra ere egin zen presio bidezko garbiketarekin. Urteko sasoi honetan belarra eta sasiak azkar hazten dira, eta Udala lan horiek modu planifikatuaren egiten ari da udalerriko auzo guztietan. Kanposantuko hormari dagokionez, udal zerbitzuek egiaztatuko dute egoera, eta beharrezkoa bada, dagozkion neurriak aztertuko dira.

KLIK

1960

Antonio Arrillagak bidalitako argazki horrekin atzera egin dugu denboran, 1960 ingurura arte. Ez ditu argazkiko kide guztiak ezagutzen, baina eman ditu batzuen izenak: Alvarez anaiak, Gabilondo, Saturixo, Gorosabel, Gurrutxaga, Odria, Pepe Arrillaga eta Saez.

Iturria konpondu egin behar da

"Basarteko iturria hondatuta egon da denbora luzez, eta badirudi konpontzeko saiakera bat egin dutela, baina, hala ere, ez dago ondo. Sekulako ur-txorroa botatzen du, eta txakurrak beldurtu egiten dira. Horrela ez dago ura edaterik! Bero honekin, behar-beharrezkoak dituzte gure txakurrek iturriak; beraz, eskertuko genuke iturria ganoraz konpontzea".



"Iradokizun bat egin nahiko nioke Udalarri: badakit igerileku denboraldiaren hasiera eta amaiera datak zehaztuta daudela eta ezin direla eguraldiaren arabera aldatu, baina beste herri batzuetan badaude ur-txorrotak dituzten parkeak, eta Elgoibarren ere halako parkeren bat egokitu daitekeela iruditzen zait. Igerilekurik ezean, egun beroei aurre egiteko aproposa izango litzateke".

2025eko ekitaldia itxita, Udalaren egoera ekonomikoa ona dela zehaztu dute

Erakundeen arteko elkarlanari aparteko garrantzia eman diote

Ainhoa Andonegi

Elgoibarko Udalak 2025eko kontu orokorra aurkeztu du osoko bilkuran, eta Udalaren egoera ekonomikoa "onbidertua" dagoela adierazi du. Besteak beste, kanpo-inbertsioa erakartzeko gaitasuna nabarmendu dute, eta azaldu dute Udalak baliabide publikoak zorrotz kudeatzeko duen gaitasunari esker urtea 52 milioi eurotik gorako ondarearekin itxi dutela eta diruzaintzako 5.212.159,24 euroko gerakina duela Udalak.



Udaletxea. UDALA

Sarrera arruntak, zergak baino gehiago

Udalaren diru-sarreraren erdia baino gehiago (%53,34) transferentzia arruntetatik etorri da, eta adierazi dute proportzio horrek "argi eta garbi" gainditu

duela zerga zuzenen kopurua (%18,57). Horri gehitu behar zaizkio proiektu zehatzetarako hartutako kapital-transferentziak, metatuan 2,7 milioi eurotik gorakoak. "Baliabide horiek eskuratzek lan teknikoak, aurrea

hartzea, erakundeen arteko elkarrikerarako gaitasuna eta proiektu sendoak eskatzen ditu, eta udalerriko bizilagunen gaineko karga ekonomikoa zuzenean murriztea ahalbidetzen du", esan dute arduradunek.

Egoera ekonomiko "sendoa"

Ekitaldiaren finantza-itxierak ekonomia- eta finantza-egoera sendoa islatzen duela azpimarratu du Udalak: "Likidezia hori ez da berez helburu bat, baizik eta udalerriak hurrengo erronkei aurre egin diezaiekeen froga –Osasun Zentro berria, trantsizio energetikoa, etxebizitza... baita funtsezko espazioen hiri-eraldaketa–, Elgoibarko egonkortasun ekonomikoa arriskuan jarri gabe eta presio hori bizilagunen poltsikoetara eramane gabe".

Nerabeentzako aholkularitza psikologikoa emango du Udalak irailetik aurrera, debalde

Nerabeen egoera psikologikoaren diagnostia egin dute 'Zurrumbilao' egitasmoaren baitan

A.A.

Elgoibarko Udalak *Zurrumbilao* egitasmoa abiatu zuen duela urtebete, Elhuyarrekin elkarlanean, DanobatGroupen dirulaguntzari esker. Egitasmo horren barruan, nerabeen ongizate emozionala aztertu dute, sektoreko profesionalen gidaritzapean. Egin dituzte, besteak beste, hasierako diagnostikoa, hitzaldi irekiak, esparruko profesionalekin saioak eta topaketak familiarekin, herriko DBHko ikasleekin, hezkuntza-zentroekin eta herriko eragileekin eta kirol nahiz kultur taldeekin.

Joan den astean, bestalde, beste bi lan-saio egin zituzten, Elhuyarren laguntzarekin. Lehen saioak esparruko profesionalak bildu zituen eta bigarrenagoan, berriz, eragileek eta familiekin hartu zuten parte. Elhuyarrek azken urtean egindako diagnostikoaren laburpena eta diagnostikotik eratorritako helburu estrategikoak aurkeztu zituen,



Zurrumbilao egitasmoaren aurkezpeneko irudi bat. UDALA

eta hemendik aurrerako lanke-tarako bide-orriaren oinarri izango diren jarduera-ildoak lehenetsi zituzten, taldekako lan-dinamikan.

Hiru lan-ildo

Lan-saio haietatik hiru zeregin zehaztu dituzte: batetik, nerabeentzako aholkularitza psikologiko zerbitzua jarriko du martxan Udalak irailetik aurrera. Doakoa eta konfidentzia-

la izango da. Bestetik, nerabeekin harremanetan dauden helduei –familia, ikastetxeak eta herriko eragileak– formazio-saioak emango dizkiete urritik aurrera, eta nerabeei laguntzeko tresnak eskainiko dizkiete. Azkenik, gazteen aho-tsa entzuteko guneak sortuko dituzte, diagnostikoa horren beharra erakutsi baitu. Udala lanean ari da nerabeen iritziak, beharrak eta ekarpenak jasotzeko.

Uztailerako prestatuko dute aparkalekua DMP zegoen lursailean



Aparkaleku-eremua. ASIER ORBEA

A.A.

Urtarrilean ekin zioten DMP enpresaren lurretan aparkalekua egokitzeari, eta, Udalak jakinarazi duenez, uztailerako erabilgarri egongo da. DanobatGroup taldea da DMP enpresaren jabea, eta bere gain hartu zuen eraikina eraistea. Udalak alokairuan hartuko du lursaila, aparkalekuak egiteko. Udaletik eskerrak eman dizkiote Danobatgroup-i, herriaren alde egiten ari den lanagatik.

Autokarabanentzako gunea

Orotara, 42 ibilgailuentzako lekua izango du aparkalekuak, eta horietatik hamar, autokarabanentzako izango dira, bereziki, udalerrian bizi diren herritarrentzako. Egunez erabiltzeko aparkalekua izango da, gaua pasatzeko aukerarik gabe. Espazioa osatzeko, hondakin-urak husteko prestatutako gune bat eta ura kargatzeko puntu bat egongo dira.

Baxoaren azterketak euskaraz egitearen aldeko mozioa onartu dute

Aho batez onartu dute mozioa Elgoibarko Udalaren osoko bilkuran

A.A.

Azterketak Euskaraz taldeak 2026ko Baxoa azterketa euskaraz egitearen aldeko mozioa aurkeztu du maiatzeko udalbatzarrean, EH Bilduren bitartez, eta udalbatzak aho batez onartu du. Horrenbestez, Elgoibarko Herri Kontseiluak sostengu osoa adierazten die euskarazko irakaskuntzaren sareetan ari diren ikasleei, familieei eta hezkuntza taldeei, eta Bordeleko akademiako errektoreari eskatzen dio, behin-behinean, euskaraz pasatzeko aukera atxikitzeko, 2012tik indarrean den esperimintazioaren jarraipen gisa, Matematika azterketa lehen

mailako ikasleentzat. Era berean, dei egiten dio Frantziako Hezkuntza ministroari 2026ko ekaineko azterketetan "eskualdeko hizkuntzen" egiazko kontsiderazioa berma dezan, luzamendurik gabe; bereziki, Matematika Aurreratuko azterketan, lehen mailako ikasleentzat; eta Ahozko Proba Handian, Terminaleko ikasleentzat. Horrez gainera, gogorazi dute hizkuntza gutxiagotuen aldeko diskurtsoak ekintza zehatz eta koherenteetan islatu behar direla; eta, azkenik, aldarrikatzen dute euskararekiko atxikimendua, lurraldeko ondare bizia baita.



Maite Urteaga, garaipen bikoitza ospatzen: Elgoibarko etapa eta Itzulia. Lagatakkoa



Urteaga, sari-banaketan. UNAI AGOTE



Regina Gonzalez Somarriba, kadeteetan azkarrena Elgoibarren. ASIER ORBEA

Maite Urteaga zumaiarrak erakustaldia eginez irabazi du Gipuzkoako Itzulia

Gipuzkoako VI. Itzuliko hiru etapak irabazi ditu Maite Urteagak Open mailan

Asier Orbea Ostolaza ELGOIBAR

Maite Urteaga Gipuzkoako Itzuliko hiru etapak irabazita nagusitu zen Open mailan –23 urtez azpikoak eta elitekoak–. Open mailako txirrindulariez gainera, juniorrak eta kadeteak ere lehiatu ziren; azken horiek, ibilbide laburragoetan. Guztira 213 txirrindulari aritu ziren lehian, eta bero sapa handiari egin behar izan zioten aurre errepedean. Gipuzkoako Itzuliaren seigarren ekitaldia izan dena Tolosatik abiatu zen, joan zen ostiralean, erlojuaren aur-

kako 3,7 kilometroko saioarekin, eta Urteaga izan zen azkarrena (5:16). Zumaiarrak 42,15 kilometro orduko batez besteko abiadura lortu zuen. Bigarren etapa Deban hasi eta amaitu zen, zapatuan, eta han ere zumaiarra izan zen nagusi. Grupo Eulen-Amenabar taldeko ordezkariak bakarrik gurutzatu zuen helmuga-marra, eta 42 segundo atera zizkion bigarren sailkatuari, Maier Olano Arozenari (Massi Baix Ter). Bianca Olympia Norrid-Mortensen sailkatu zen

hirugarren postuan, irabazlearengandik minutu eta 36 segundora.

Itzuliko azken etapa Elgoibarren hasi eta bukatu zen, igandean, eta Gipuzkoako Txirrindulari Federazioak Elgoibarko Lagun Taldearen laguntza izan zuen antolakuntzan. Era berean, dozenaka boluntarioren lanari esker jokatu ahal izan zuten proba. Aurreko egunetan moduan, Urteaga izan zen indartsuena, eta bakar-bakarrik ailegatu zen Bernardo Ezenarro kalean

zegoen helmuga-marrara. Irabazleak 36,7 kilometro orduko batez besteko abiadura lortu zuen ibilbideak zituen 88,9 kilometroetan. Zumaiarra 2022. urtean hasi zen txirrindularitzan, eta Idotorbeko Igoeran hartu zuen parte urte hartan. Lau urtean egin duen aurre-rapena itzela izan da, eta bigarren urtez jarraian irabazi du Gipuzkoako Itzulia. Sailkapen nagusian Urteagak Maier Olano tolosarra eta Bianca Olympia Norrid-Mortensen danimarkarra izan ditu atzetik: Olano 1:18ko atzerapenarekin eta Norrid-Mortensen 3:16koarekin. Hain zuzen, azken sailkapenak bat egin du Debako eta Elgoibarko etapetan errepikatu zen podiumekin, hiru txirrindulariok nabarmendu baitziren lineako bi etapetan.

Junior eta kadete onenak

Junior kategoriako txirrindularien artean Agueda Sanchez Llambias (Tenerife Bike Point-La Sede) izan zen onena. Sanchezek hirugarren postua eskuratu zuen Tolosako erlojupekoan, bigarren eta garaipena Elgoibarkoan. Hala, sailkapen nagusian minutu eta 48 segundoko aldea atera zion Ane Zubeldia Peñagarikanori (JRG Norclamp). Azkenik, kadete mailan, Gisela Herrero (Mirat Team) gailendu zen sailkapen nagusian. Herrero 25 segundoko aldea atera zion June del Teso Olaizolari (JRG Norclamp OTXE) eta 44 segundoko hirugarren postua eskuratu zuen Regina Gonzalez Somarribari (Occident Punta Galea). Hain justu, Gonzalez izan zen azkarrena Elgoibarren bukatu zen azken etapen.

Egoi Motriko podiumera igo da Gipuzkoako Txapelketan

Elgoibarko igerilari gazte- txoak maila onean aritu ziren Zumaian jokatu zuten Gipuzkoako Eskola Arteko Igeriketa Txapelketan. Kimuen kategoriako igerilariak hartu zuten parte; 2015ean jaiotakoek. Elgoibarko taldeko ordezkariak Alex Alustiza, Oier Elizburu eta Egoi Motriko mendaroarra izan ziren; azken horrek brontzezko domina eskuratu zuen tximeleta estiloko 50 metrokoan (40,81). Bidasoa taldeko Eki Cabrerizo izan zen irabazlea (37,91).



ELGOIBARKO IGERIKETA TALDEA

Pilotari gazteak, plazara



AINHOA ANDONEGI

Denboraldia amaitzeko Pilota Eguna antolatzen du Lagunak Pilota Eskolak, eta gaur egingo dute aurtengoa, 17:00etan hasita, Kalegoen plazako frontoian. Benjamin, alebin eta infantil mailetako 50 bat pilotarik hartuko dute parte; hau da, 9 eta 11 urte bitarteko pilotari gaztetxoek. Amaieran, guztiek jasoko dute oroigarria.



Emakumezkoern Haundi taldekoak, pozarren, liga amaieran. CD ELGOIBAR



Erregionaleko taldea, zaleekin, Lasarte-Orian. CD ELGOIBAR

Haundik hirugarren amaitu du liga, eta Erregionalekoek Kopako finala jokatuko dute

Omenaldiekin eta aho-zapore onarekin agurtu dute denboraldia Haundi taldeek

Asier Orbea ELGOIBAR

CD Elgoibarko Haundi taldeek zaleen aurrean jokatu zituzten ligako azken partidak, joan den asteburuan. Emakumezkoen taldeak hirugarren postuari eutsi nahi zion azken sailkapenean, eta horretarako berdinketa edo garaipena behar zuten Goierri Gorri taldearen aurkako partidari, goierritarrek puntu bat gutxiago baitzuten sailkapenean. Zuri-gorriek erraz irabazi zuten, 4-1. Manar

Ahddaddouk –bi gol–, Aroa Ramosek eta Marina Zubiaurrek egin zituzten etxeko taldearen golak, denboraldiko azkenak. Sasoi oso ona osatu dute elgoibartarrek, hemeretzi partida irabazi, bi berdindu eta bederatzi galduta. 30 jardunalditan 72 gol sartu dituzte eta 37 jaso; eta ligako bigarren goleatzaile onena izan da Aroa Cernada Lopez, 22 golekin. Elgoibartarrei, baina, denboraldia borobiltzea falta izan

zaie, igoera faserako sailkatzeko atarian geratu baitira, hirugarren postuan. Bigarren postuan bukatu duen Intxaurdi taldeak jokatuko ditu Euskal Ligara igotzeko kanporaketak. Ohorezko Erregionaleko Mailako liga txapelketa irabazi duen Bergara, berriz, zuzenean igo da mailaz.

Zapatuan Zumaiakoren aurka 0-0 egin eta gero, gizonezkoen Haundi taldeak zazpigarren postuan amaitu du Ohorezko

Erregionaleko Mailako liga txapelketa. Elgoibartarrek hamalau partida irabazi, zortzi berdindu eta hamabi galdu dituzte; eta horietan 53 gol egin dituzte eta 52 jaso. Ligako azken partida beti izaten da berezia; are gehiago, zaleen aurrean jokatuz gero; eta are bereziagoa taldea lagako duten jokalarientzako. Horixe da Carlos Didier Mosqueraren eta Ibon Alonsoren kasua, amaitu baita CD Elgoibarren egin duten ibilbidea. Klubaren eta taldekideen aitortza jaso zuten biek.

Kopako finala jokatuko du Erregionaleko taldeak

Gipuzkoako Erregionaleko Mailako Kopako finala jokatuko du CD Elgoibarko bigarren

taldeak. Elgoibartarrek Lasarteko Ostadar taldearen aurka jokatu zuen finalerdia, partida bakarrera, Ostadarren etxean, eta irabazi egin zuten.

Edozelan ere, gauzak oker hasi ziren bisitariarentzat, 2-0 aurreratu baitzen etxeko taldea lehenengo zatian. Bigarren zatian iritsi ziren zuri-gorrien golak; bigarrena, gainera, arauzko denbora amaituta zegoenean. Hala, luzapenean erabaki zen kanporaketa, eta nagusi izan zen Elgoibar, Unax Olabek eta Faysal Afassik sartutako golei esker. Kopako finalean Irungo San Marcial taldea izango dute aurkari elgoibartarrek. Zapatu honetan, hilak 30, jokatuko dute finala, Orion, arratsaldeko bostetan hasita.

Larizek irabazi du Castro Valnerako kilometro bertikala

Kantabriako Vega de Pas herrian jokatu zuten, domekan, Castro Valnerako kilometro bertikalaren hamalagarren ekitaldia, Kantabriako Kilometro Bertikalen Txapelketa jokoan zela. Iñigo Larizek (CATT Morkaiko) irabazi zuen proba, 51 minutu eta 42 segundoko denborarekin. Partaideek 4,2 kilometroko ibilbidea osatu behar zuten, Pandillo auzotik (520 metro) abiatu eta Castro Vanera gailurreraino (1.685 metro), eta 1.200 metroko desnibel positiboa gainditu.



ANTOLATZAILAK

Sanloko taldeak, Kopako finaletan



SANLO EKT

Euskal Kopa irabazi ostean, Gipuzkoakoa eskuratzeko aukera du orain Alcorta FG eskubaloitako taldeak, finala jokatuzko sailkatu baita. Errenteriako Ereintza taldea izango dute aurkari Olaizaga kiroldegian jokatuko duten finalean, zapatu honetan, 17:45ean hasita. Sanloko beste hiru talde ere sailkatu dira Kopako finaletarako: Tecnifuelle –infantil neskek–, Amaro Eraikuntzak –kadeite neskek– eta Deuko Izarra –gazte mailako neskek–.

Trinitateak ospatuko dituzte Mendaron asteburuan, Mendarozabal auzoko jaiak

Gaur hasiko dira jaiak, Bizi Poza txarangarekin, eta etzi, igandea, izango da egun handia

Ainara Argoitia

Bizi Poza txarangarekin hasiko dituzte, gaur, ostirala, Mendarozabal auzoko jaiak: trinitateak. 19:00etan irtengo dira txaranga-kideak Trinitate basiliza ondotik, kalejiran, asteburuko jaia iragartzera. Bihar, berriz, eta ohitura duten moduan, arbola jasoko dute ermita ondoan jai batzordekideek, eta jaira deituko dute elizako kanpaiek ere. 17:00etarako iragarri dute kanpai-jotzea eta arbola-jasotzea. Nolanahi ere, ospakizun handienak domekan izango dira, Trinitate Egunean.

Domekan, Ameikutz musika eskolako txistulariek hasiko dute jaia, 10:30ean. Kalez kale ibiliko dira txistulariak, eta Trinitaten bertan amaituko dute kalejira, 12:00 aldera, ordu horretan esango baitute meza nagusia. Mezatan, Mendaroko bertako eta Itziarko abesbatzek parte hartuko dute. Horren ostean, berriz, ohiko herri-kirol jaialdiaz gozatzeko aukera izango dute Trinitatera batzen direnek. 12:45ean hasiko dute jaialdia, eta hiru kirolari arituko dira lanean: Goizeder Abendibar (Mallabia, 2008) ari-

tuko da harri jasotzen, izetatarren eskolakoa, eta Arkaitz Etxebeste (Igeldo, 1994) eta Ugaitz Mugertza (Mutriku, 1987) arituko dira nor baino nor gehiago aizkoran. 2025eko azaroan, Euskadiko Harri Jasotze Txapelketan zilarrezko domina lortu zuen, Abadiñon, Abendibarrek, hiru minutuan harri zilindrikoari 43 altxaldi eta kubikoari 29 eginda. Aizkolariei dagokienez, bata etxekoa da: Ugaitz Mugertza, plazaz plaza hamaika urtean dabilena eta saskia lorpenez ondo betea duena. Etxebeste gazteagoa da. 2024an egin zuen debuta plazan igeldoarrak, 29 urterekin, eta bi hilabeteren barruan Urrezko Binakako Aizkolaria Txapelketa irabazi zuen, Iker Vicente lagun hartuta. Iaz, azaroan, berriz, Euskal Herriko txapeldun izan zen, Bigarren Mailan, eta, hala, Lehen Mailara igotzea lortu zuen.

Herri-kirol saio ondorena, aldiz, herriko trikitilari gazteek girotuko dute.

Trinitate Txiki astelehenean

11:00etan, meza izango dute mendarorrek Trinitate baseli-



Ugaitz Mugertza, Trinitaten, aizkoran, duela bi urteko jaietan. AINARA ARGOITIA

zan; ondoren, eta urtero bezala, ikastolako haurrak igoko dira ermita aurreko oholtzara, bertsotan egitera. Txandaka-txandaka igoko dira maila bakoitzeko eskola-umeak, eta ikasturtean zehar bertso eskoletan prestatutako bertso-sortak kantatuko dituzte. Saio horren ondotik, Leandro Esnaola eta Saioa Lizarralde arituko dira soinuarekin eta panderoarekin Trinitate Txiki Eguna alaitzen. Bai domekan eta bai astelehenean ere txosna jarriko dute elizako atarian, jan-edanerako.



Mendaroko eskola-umeak, bertsotan, artxiboko argazki batean. AINARA ARGOITIA

Jolasa, herriko ingurune naturalaz ikasteko bitarteko

30 bat ume batu dira 'Txoko txiki' ekimenera

A.A.

Makila bat eta bi harri erabiliz eguzki-argiarekin orientatzen ikasi, herriko zenbait arbolaren inguruko ezaugarriak ezagutu eta hieroglifikoetan burua trebatzeko aukera izan zuten zapatuan *Txoko txiki* jolaserako izena eman zuten haurrek. Motxaila Herria maketaren sortzaileek prestatu zuten, eta 11:30ean hasi zuten, Trinitaten, Txoko Txiki Elkarte-ko Amagoia Basurtok kontaktu zien ipuina entzunez. Gero, bi

talde nagusitan banatuta, herrian hara-hona ibili ziren haurrak, berdeguneetan eta arbola ondotan ezkutaturako miniaturazko ateen eta herrixken bila. Puntu bakoitzean proba bana gainditu behar izan zuten, leku bakoitzean pista bana lortzeko -hitz bana-. Hitz horiek guztiak batuta osatu zuten esaldia, eta esaldi hark eraman zituen ezkutaturako *Ametzen kutxa* zegoen lekuraino. Amets bana idatzi eta kutxan sartu zuten gero haurrek, noizbait beteko



Antolatzaileak, Arno guraso elkarte-ko boluntarioak eta eskola-umeak, zapatuan, jolasa amaitu berrikan. AINARA ARGOITIA

zaien ilusioarekin. Izan ere, horixe da, Txoko Txikiko ustez,

ametsak betetzeko lehen baldintza, gaur nekez betetzen dena:

norbere buruari amets egiteko aukera ematea.

Bigarren Mendi Eguna ospatuko dute bihar, zapatua, Mendaron, herri bazkari eta guzti

Bi ibilbide proposatu dituzte antolatzaileek; biak ere, Kilimon Trail lasterketakoak

Ainara Argoitia MENDARO

Mendi Eguna antolatu dute, biharko, Arno Guraso Elkartek, Lizarpe Mendi Klubak eta Udalak elkarlanean. Iaz antolatu zuten estreinakoz, bi helburu jarrita ekimenari: batetik, herriko haurren artean mendizaletasuna sustatzea eta Arnoren urteko mendi-irteeren kanpainera azken borobil bat ematea; eta, bestetik, Lizarpe mendi klubekoek ekimenez eta Udalaren babesarekin Gipuzkoako Mendizale Federazioak seinaleztatutako bi PR edo ibilbide

labur ezagutaraztea. Eta aurten ere helburu horiexekin osatu dute biharko plana.

Bi ibilbide proposatu dituzte, biak ere, Kilimon Trail mendi lasterketakoak. 23 kilometrokoa da ibilbide luzea, eta 11 kilometro ingurukoa motza, eta bi irteera-ordu zehaztu dituzte: luzea egin nahi dutenak 07:00etan abiatuko dira, Herriko Enparantzatik; eta motza egin nahi dutenak, 09:30ean, leku beretik. Hori bai, luzea egin nahi dutenentzat baldintza bat ere zehaztu dute antolatzaileek: 14 urte

beteak izatea. Iaz bezala, Mendi Eguna egun osoko jai izatea nahi dute antolatzaileek, eta, horretarako, herri bazkaria ere antolatu dute. Eguaztenera arte izan zuten zabalik izena emateko epea, eta, jakinarazi dutenez, 130 bat lagun elkartuko dira bazkaltzeko. Bazkalostean, berriz, opariak banatuko dizkie Arno guraso elkarteak urtean zehar antolatu dituen irteeretan parte hartu duten mendizale gaztetxoek.

Biharkoaren harira, antolatzaileek argi utzi nahi izan dute mendi-irteeretan parte hartzea



Mendizale talde bat, iazko Mendi Egunean. AINARA ARGOITIA

librea dela, eta plazan ordurako agertzearekin nahikoa dela. Eta halakoetan egin ohi duten moduan, gomendio bat egin dute: mendirako arropa eta oinetako erosoa janztea, eta ura

eta hamaiketako aldean hartzea. Bi anoa postu izango dira jan-edanerako: Munitibarrenen (12.km) eta Lizarpen (16.km). Bazkaria 14:30erako iragarri dute.

Plaza auzoaren iraganari buruzko ikus-entzunezkoa emango dute ekainaren 5ean, udalbatza-aretoan

Plazako sei lagunen testigantzekin osatu du lana Ainara Argoitia kazetariak

Ainhoa Andonegi MENDARO

A8 autobidea eraiki aurreko Plaza auzoari buruzko ikus-entzunezkoa emango dute ekainaren 5ean Mendaron: *Oroitzapenen kutxatik*. BARRENAko kazetari eta In Leike kultur elkarteko Ainara Argoitiaren lana da, eta sei lagunen testigantzak jaso ditu bideoan. Plaza auzoan jaio eta hazitakoak dira haietako bost –Silverio Txurruka, Miguel Mendikute, Juanita Iriondo eta Jose Antonio eta Jesus Mari Mendikute anaiak– eta Plaza auzoko Martitenea Txiki baserrira ezkonduak da seigarrena –Juanita Ugarte-buru (Berriatua, 1940)–. Haien ahotik, mendaroar askorentzat ere ezezaguna den Plaza auzoari buruzko hainbat jakingarri batu ditu kazetariak; besteak beste, autobidea eraiki aurretik Plazan izan ziren enpresen, familia-negozioen, aisialdiguneen, eta etxeak husteru behartu zituzten familien inguruko kontuak. Udaletxeko udalbatza-aretoan izango da proiektzioa, 18:30ean. Bideoak ordubete irauten du.

Argoitiak azaldu du halako helbururik gabe hasi zuela



A8 autobidea eraiki aurreko Plaza auzoa. AITOR ETXEBERRIAREN BILDUMAKOIA

proiektua, Plaza auzora egindako ibilaldi batean auzokoekin bertakoekin egindako solasaldi baten ondoren. Aipatu du sarri joan ohi dela auzo hartara eta Miguel Mendikuterekin eta Jose Antonio Mendikuterekin izandako berbaldi batean sortu zituztako zerbait grabatzeko asmoa: "Sekula entzun gabeko kontuak aipatu zizkidaten ortuan lanean ari ziren batean; tartean, 70eko hamarkadan hamasei familia etxerik gabe gelditu zirela Plazan, A8 autobidea eraikitzearen ondoren. Hari horri tiraka hasita-

ko proiektua da hau. Kontu haiek guztiak grabatu eta eskola-umeei erakutsi beharko geniekeela aipatu nien, uste dudalako herri-identitatea sendotzeko ezinbestekoa dela zer izan garen eta nor garen ezagutzea; are gehiago, mundura zabalik bizi garen garaiotan. Kontua da nik uste baino gauza gehiago zitzutela kontatzeko gure lagunak, eta, ibilian-ibilian, handituz joan dela proiektua, esku artean dugun hau bihurtu arte. Oso eskuzabala izan dira guztiak, bai nirekin, bai proiektuarekin".

Udalekuei buruzko bilera informatiboa ekainaren 4an

Udaleku irekiak antolatu ditu Udalak ekain eta uztaileko, eta haiei buruzko informazioa emateko bilera egingo dute ekainaren 4an, San Agustin kulturunean, 18:00etan. Iaz bezala, bi txanda eskainiko dituzte aurten ere: ekainaren 22tik uztailearen 3ra arte izango da lehenengoa eta uztailearen 6tik 17ra arte bigarrena. Azken

urteotan bezala, 09:00etatik 13:00etara arte izango da udalekuen ordutegia.

Zaintza-zerbitzua

Hain zuzen, HH3 eta LH6 arteko ikasleentzako eskaintza da, baina, eskolaldia amaitutakoan guraso askori sortzen zaizkien kontziliazio arazoak jakitun, Udalak zaintza-zerbitzua jarriko du HH2ko haurrentzat, Arno Guraso Elkartekoekin elkarlanean. Udaleku irekiek irauten duten denbora-tarterako izango da zerbitzu hori.

Kontzertuak iragarri ditu musika eskolak hilaren 2rako eta 9rako

Ameikutz musika eskolakoak hasiak dira ikasturte amaierako kontzertuak ematen. Eguaztenean egin zuten lehenengo talde-kontzertua trikiti, pandero eta txistu ikasleek, eta ekainaren 2rako eta 9rako iragarri dituzte hurrengo biak: hilaren 2an, piano, biolin eta gitarra ikasleen txanda izango da; eta 9an, berriz, bateria ikas-

leena. Bi kontzertuak San Agustin kulturunean izango dira, 19:00etan hasita.

Ekainaren 17an, plazan

Taldeko kontzertuak izango dira horiek guztiak, baina opor aurreko jaialdi handia Herriko Enparantzaren egingo dute, urtero bezala. Ekainaren 17an izango da hori, arratsaldeko zazpitan. Egun horretan musika eskolako ikasle guztiak parte hartuko dute, baita abesbatzakoek ere. Taldeko igoko dira haurrak oholtzara.

ENGLISH SQUARE
SCHOOL OF ENGLISH
Sokagin kalea 12, DEBA
648 268 206 • info@english-square.net

Ikastaro trinkoak ekainean eta uztailean
DBH eta batxilergoa
First eta Advanced tituluak



Errotabarriko geltokiko oinezkoen trenbide-pasagunea. UDALA

Errotabarri eta San Lorentzo geralekuak tren geltoki bakar bihurtzea aztertuko du ETSk

Esku-hartzeak oinezkoen eta ibilgailuen trenbide-pasaguneak ezabatuko lituzke

Ander Gomez

Euskal Trenbide Sareak (ETS) Ermuko trenbidearen trazadura egin daitezkeen hobekuntzak baloratzeko azterlan informatiboa idazteko prozesua abiatu du. Bilbo-Donostia linean egingo da, Ermuko geltoki nagusiaren eta unibertsitateko geralekuaren artean. Azterlanak 700.000 euroko aurrekontua izango du eta hamabost hilabeteko epea aurreikusi dute hura egiteko.

Proiektuak tren sarearen azpiegitura berrantolatzea du helburu, eta hainbat alternatiba tekniko aztertuko dituzte, hala nola trazadura berriak diseinatzea eta linea bikoiztea. Halaber, herritarrengan eragin zuzena izango duen esku-hartzea aztertuko dute: San Lorentzo eta Errotabarri geralekuak egitura bakarrean bateratzea. Geltoki berriaren kokapenari dagokionez, Udalak proposatutako aukeratako bat eraisketa prozesuan dagoen IDESAko pabiloiaren atzealdeko eremua da.

Bateratzea betez gero, segurtasun arazo handiak dituzten eta *puntu beltz* izendatuta dauden bi trenbide-pasaguneak ezabatuko lirateke –Sallabenteko ibilgailue-

na eta Errotabarriko oinezkoena–. Neurri horien bidez, segurtasuna handitzea, irisgarritasuna hobetzea eta ermuarren zein kanpotik datozen erabiltzaileen eguneroko joan-etorriak erraztea espero dute.

Trenbidez harago, azterlanak ingurumen-eraginaren azterketa jasoko du, baita tren azpiegitura berria hiri-ingurunean egokien integratzeko irizpideak ere, ibilgailuen trafiko-fluxu samurra bermatuko duten eta oinezkoentzako seguruak izango diren pasabideekin.

Azterlana Ermuko Udalaren eskaeraren ondorioz abiatu da, joan den otsailan Susana Garcia Chueca Mugikortasun Iraunkorrek sailburuarekin egindako bileran gaia mahaigaineratu ondoren. Beatriz Gamiz alkateak azpimarratu du proiektuak eragin zuzena izango duela herritarren eguneroko bizitzan: "Eki-menaren helburua ez da azpiegitura modernizatzea soilik, baizik eta ingurua hobetzea, oztopo arkitektonikoak ezabatzea eta herriko auzoen arteko integrazioa indartzea".



Sallabenteko geltokiko ibilgailuen trenbide-pasagunea. E.U.



Kopa altxatzen, igoera fasea jokatu ezin izan zuen Mara Gonzalez gogoan. EE

Lauko Errotabarrik kalez kale ibiliko den trenean ospatuko du maila igoera

Harrera ofiziala egingo diete gaur, barikua: udaletzeko balkoira igoko dira eta zaleen gunea egongo da Martxoaren 8a plazan

A.G.

Errotabarriko senior mailako taldeak maiatzeko lehen asteburuan jokatu zuen Urrezko Ohorezko Mailara igotzeko fasea, Galiziako A Cañiza herrian. Igoera lortu eta egun berean Ermura bueltatu ziren, baina gauerdian ailegatu ziren Kaltetxango plazara. Bertan familia eta hainbat lagun zain zituzten arren, Udalak azaldu duenez ezin izan zuten merezi bezala ospatu "klubarentzat ez ezik Ermuko herriarentzat mugarririk historiko den lorpen hori". Horregatik, harrera ofiziala egingo diete gaur arratsaldean, herritar guztiarekin batera ospatu dezaten.

Tren gaineratik eta udaletxetik agurtuko dituzte herritarrak

19:00etan hasita, Errotabarriko jokalariek, teknikariek eta zuzendaritzak tren turistiko batean zeharkatuko dituzte Ermuko kaleak. Lehen paseak eman, lehen golak sartu eta lehen geldiketarik egin zituzten tokitik abiatuko dira, Udal Kiroldigitik. Diputazio Kalea, San Pelayo, Zearkale eta Bizkaia eta Gipuzkoa etorbideak zeharkatuko dituzte, eta autobidearen sarre-

ra zaharreko aparkalekuan buelta hartu. Abeletzeko tunetik igo eta Izelaieta eta Goienkaletik pasata, Okinzurira joango dira. Bukatzeko, Zubiaurretik jaitsiko dira eta Valdespina Markesa kaletik udaletxeraino ailegatuko dira.

Udal ordezkariak harrera instituzionala egingo diete osoko bilkuren aretoan, bai nagusiei, bai Espainiako bosgarren postua egin duten gazte-mailako taldeari, eta, 19:30 aldera, balkoira aterako dira. Elizpean egongo diren herritarrei zuzenduko zaizkie alkatea, Jasone Izarra presidentea, Mikel Martin senior taldeko entrenatzailea eta kapitainak.

Errotabarriren zaleen gunean jarraituko du festak

20:00etan, herritarrek jokalariekin aurrez aurre elkartu eta argazkiak ateratzeko aukera izango dute Martxoaren 8a plazan egongo den zaleen gunean. Txosna egongo da, musika eta postutxoa Errotabarriren arroparekin, maila igoera ospatzeko sortu duten kamiseta berezia barne. Festak 23:00ak arte irautea aurreikusi dute.

ALBOKA

MUSIKA ESKOLA
943 17 12 98

Abesbatza
Banda
Biolina
Biolontxeloa
Flauta

Gitarra
Gitarra elektrikoa
Gitarra baxua
Musika Hizkuntza
Klarineta
Panderoa

Perkusioa
Pianoa
Saxofoia
Trikitixa
Tronboa
Tronpeta

albokamusikaeskola@hotmail.com

RIF

ITURGINTZA
KONPONKETAK

Valdespina Markesa 16 · ERMUA
605 71 10 81

Torrealdy

ZURE ENHANTZA-OSASUNERAKO BAZKIDE ESTRATEGIKOA

ZERGA, LAN ETA KONTABILITATE AHOLKULARITZA

ERMUA

Hamabi orduz igoerak egingo dituzte Urkora, minbiziaren kontrako borrokan laguntzeko

III. Javi Alberdi memorial solidarioa egingo dute bihar, 07:00etatik 19:00etara

Ander Gomez

Maiatzaren 30ean, zapatua, Urko mendira igotzen eta jaisten emango dute eguna ermuarrek eta ekimen solidarioa batzen diren inguruko mendizaleek. Parte hartu nahi dutenek tiketa eskuratu beharko dute, plazan, eta, atzealdean izena eta telefonoa idatzita, tontorrean egongo den postontzian sartu.

Tiket solidarioen salmenta 06:30ean hasiko da, eta 07:00etan, Hiru Txikiak Trail taldeak ekingo dio lehen igoerari. Goizean zehar haurren eta gazteen irteerak egingo dira, eta 10:00etan, mugikortasun urriko pertsonena; bidean, Javi Alberdiri omenaldia egingo diote. Eguerdirako Urkora iristea aurreikusitako dute, eta harrera berezia egingo diete herrira bueltatzen direnean. 15:00etan, boluntarioen bazkaria izango da; eta arratsaldean, dohaintzak eta tiket solidarioak biltzen jarraituko dute. 19:00etan, bildutako ekarpenen zenbaketa egingo dute, eta sari-banaketa erekin itxiko dute III. Javi Alberdi memorial solidarioa.

Iaz, 3.196,63 euro bildu zituzten, saharar herriari oinarrizko baliabideak bidaltzeko –elikagaiak,



Mugikortasun urriko pertsonak, Urkoko tontorrean, laguntzaileekin batera. E.J. CARRAL

botikak, eskolako materiala...-, eta lehenengo aldian, bost zifratara ailegatu ziren: 10.589,92 euro eman zizkioten SLC6A1 Spain elkarteari, Hugo M.D. ermuarraren entzefalopatia epileptikoa ikertzen laguntzeko. Aurten bildutakoa Minbiziaren Aurkako Elkartera bideratuko dute, prebentziorako, gaixotasuna dutenei eta familiei laguntza eskaintzeko, ikertzeko eta tratamendu hobek garatzeko.

Egunean bertan *zero ilara* jarriko dute plazan, nahi eta ahal duenak aparteko ekarpen eko-

nomikoa egin dezan. Horrez gain, kontu zenbaki bat ere jarri dute: ES45 3035 0048 61 0481157288.

Aurrekoetan bezala, igoera gehien egiten dituzten gizon-emakumeek saria izango dute: urdaiazpikoa, sorta bat ardo-botila eta Arabako Luis Cañas bodegara bisita. Hala ere, antolatzaileek argi utzi dute ez dela ekintza lehiakorra: "Helburua Javiri omenaldi hunkigarria egitea da, mugikortasun urriko pertsonen sentsibilizazioarekin bat egitea eta minbiziaren kontrako borrokan laguntzea".

Txangoak, tailerrak eta naturarekin lotutako ekintzak umeen udalekuetan

A.G.

Zabalik da *Oporretan jolas* udaleku programarako izen-ematea. LH1 eta LH6 arteko Ermuko ikasleentzako da, eta umeei uda giroan ondo pasatzea eta euskara praktikatzeko du helburu.

Programak lau aste iraungo du, ekainaren 22tik uztailearen 17ra bitartean, eta aste bakoitzean askotariko jarduerak izango dituzte: *Kirolez blai* astean, bizimodu aktiboa sustatzeko kirol-jarduerak eta sozializazio ekintzak egingo dituzte; STEAM astea hezkuntzan zentratuko da eta sormena lantzeko tailerrak izango dituzte; aste tematikoan, natura ardatz duten ekintzak eta irteerak egingo dituzte; eta

aisialdi ekintzen astean, ohiko jolas eta txangoez gozatzeko aukera izango dute.

Zehaztu dutenez, familiek astetaz aste aukeratu ahal izango dute parte-hartzea. Izen-ematea ekainaren 4ra arte egin ahal izango da, Ermuko Udalaren egoitza elektronikoaren bidez edo aurrez aurre Abiapuntu arreta-bulegoan. Asteko tasa arrunta 40,80 eurokoa izango da; familia ugarietzat edo bi anai-arreba batera inskribatzen dituztenentzat, berriz, prezioa 30,60 eurokoa izango da umeko.

Euskara Sailak nabarmendu du *Oporretan jolas* ekimenak, "haurrei aisialdi hezitzailea eskaintzeaz gain, euskararen era-



Eskalada egin zutenekoa. UDALA

bilera sustatzeko aukera paregabea" ematen duela. Interesa duten familiek informazio gehiago jaso dezakete 943 17 91 47 telefono zenbakira deituta edo euskara@ermua.eus helbide elektronikora idatzita.



Ermua Bluesen elastikoan 14. zenbakia zeraman Ander Moyak. E.B.

Ermua Bluesek bosgarrenez ospatuko du Ander Moya memorial solidarioa

A.G.

Bihar, maiatzak 30, Ander Moya memorialaren bosgarren aldia ospatuko du Ermua Bluesek. 09:00etan hasita, txapelketa solidarioa jokatu dute Betiondoko kirol instalazioetan. Zazpiko futbol modalitatean arituko dira, eta aurten ere 300 ume baino gehiago batzea espero dute.

Hainbat eskolatatik etorriko dira; gehienak, bizkaitarrak: Berriatuko, Iurretako Gertasport, Lemoako Harrobi, Zornotzako SDA, Baskauri, Santurtziko Dinamo de San Juan... Baina Gipuzkoako eta Arabako taldeak ere egongo dira: Debako Amakak Bat eta Gasteizko Lakua, hain zuzen ere.

Ekimenak helburu solidarioa izango du, beste behin. Txapelketarako sarrerak bi euro balio du, eta errifa solidarioak salduko dituzte, euro batean. Bildutako diru guztia Martin Alvarez Muelas Fundaziora bideratuko dute, Ander Moyak sufritu zuen DIPG izeneko haurren garuneko tumore erasokorraren ikerketa sustatzeko eta familiei laguntza emateko. Iazko memorialean 1.870 euro batzea lortu zuten.

Antolatzaileek herritar guztiak gonbidatu dituzte egun berezi horretan parte hartzera: "Futbolaz gozatzera eta, aldi berean, kausa solidario horren alde egitera, Ander Moya gogoan dugula".

Abentura parkeak eta irteerak hondartzara gazteen udalekuetan

Uda gazte jolasak 2009 eta 2013. urteen artean jaiotako gazteen-entzako udalekuak dira. Bi txandatan egingo dira: ekainaren 29tik uztailearen 3ra eta uztailearen 6tik 10era. Programaren barruan hainbat jarduerak egingo dituzte; besteak beste, irteerak Mendexako abentura parkera eta Gorlizko ur-parkera, egun-pasak hondartzara, men-

di-bueltak eta Sopelako aterpetxean gau bat pasatzeko aukera.

Parte-hartzaileek aste bakoarrean zein bietan eman ahal izango dute izena, ekainaren 3a baino lehen, Abiapuntun edo Udalaren egoitza elektronikoan. Asteko 30 plaza eskainiko dituzte, eta, eskariak plaza kopurua gainditzen badu, zozketa publiko egingo dute ekainaren 8an.

Asteko prezioa 81,60 eurokoa izango da; eta 40,80koa, familia ugarietzat, gurasobakarrentzat edo anai-arreba bat baino gehiago inskribatzen dituztenentzat.



688 619 896
Zeharkale, 12 behea
48260 ERMUA

IRENE ESQUÉ col 1666

EGOITZ FORMOSO col 1675



Berano-Errekaldeko igerileku naturala eta berdegunerako zubia. ANDER GOMEZ



Haur Kontseiluko kideen maketak. UDALA

Errekalde eraldatzeko proposamenak egin dituzte umeeek; orain, nagusien txanda da

Haur Kontseiluaren proiektua udaletxean dago ikusgai; helduek domekara arte aurkeztu ditzakete proposamenak, Udalak zabalduko online formularioan

Ander Gomez

Ermuko Udalak Errekalde ingurua berritzeko prozesua abiatu du, eta herriko umeek lehen pausoa eman dute jada. 2025-2026ko ikasturteko Haur Kontseilua osatzen duten hamabi kideek zortzi hilabete eman dituzte Errekaldeko aukerak aztertzen. Horretarako, udal teknikariek eta Ermua, *hiri lagunkoia* proiektuko adineko kideekin elkartu ziren, gunea bisitatu eta hobetzeko aukerak aztertzeko. Lanen emaitza maketa bidez aurkeztu dute, eta erakusketa ikusgai egongo da

udaletzeko beheko solairuan, ekainaren 15era arte.

Bestetik, *Ermuak erabakitzen du* partaidetza-prozesuaren baitan Udalak zabaldu duen inkestan, 30 eta 64 urte arteko herritarrek euren ekarpenak egin ahal izango dituzte. Iazko aurrekontu parte-hartzaileetan, adin tarte horretako herritarrek gehien babestu zuten proposamena izan zen Errekaldeko naturagunea berreskuratzea. Udalak 85.000 euroko aurrekontua zehaztu zuen proiektua diseinatu eta betetzeko. Inkestan galdetu dute guneari zer erabilera eman

beharko litzaiokeen –deskantsurako, familiarekin egoteko, ariketa fisikoa egiteko...– eta zer elementu instalatu nahiko liratekeen –bankuak, piknik-mahaiak, kalistenia parkea, adinekoentzako jolas osasungarriak, baratzeak...–. Ermuarrek maiatzaren 31ra arte izango dute aukera horiek bozkatu edo euren proposamenak egiteko.



Inkestara joateko, eskaneatu QR kode hau.

'Aspaldiko Ermua' ezagutzeko irteera antolatu dute datorren asterako

A.G.

Ermua XX. mendean gehien hazi zen Europako herrietako bat izanik, aurretik nolakoa zen irudikatzen *Ermua ezagutzen* izeneko ekintza sortu zuten Berbalagunek. 2013. urtean egin zuten lehen ibilbide gidatua, eta, izan zuen arrakasta ikusita, azkenaldian bi urtean behin egiten saiatzen dira. Ekainaren 3an zazpigarren aldia izango da.

Udal eroldaren arabera, 1900. urtean 698 biztanlek osatzen zuten Ermua, eta 1981. urterako 18.705 biztanle zituen. *Barne-migrazioak eta horiek Er-*

muari egin zioten ekarpenak liburuan jasotzen denez, eraldaketa demografiko hura 60ko eta 80ko hamarkaden artean gertatu zen, bereziki: "Eibar 5,5 aldiz handitu zen, baina Ermuak 16 aldiz biderkatu zuen biztanleria: %700 hazi zen". Datorren eguaztenean, aldaketa hura bizi izan zuten herritarren ahotan ezagutu ahal izango da garai bateko Ermua hura.

Ibilaldia Patxi plazan hasiko da, 10:30ean, eta ordu eta erdi iraungo du. Doakoa izango da eta edozein herritarrek parte hartu ahal izango du, baina aldeaz aurretik eman beharko



1910 inguruko Izelaietako argazkia da karteletako irudia, urrian Euzkal Birusa Elkarteak atean opari utzi zutena. A.G.

dute izena. Interesa dutenek *whatsapp* mezua bidali dezakete 663 07 04 92 zenbakira, edo mezua idatzi *ermua_berba@ae.k.eus* helbide elektronikora.

MALLABIA

Zortzi futbol eta saskibaloi eskolak jokatuko dute Mallabia Cup, bihar

A.G. MALLABIA

Maiatzaren 30ean, AD Mallabia FTK antolatutako futbol eta saskibaloi koparen beste edizio bat jokatuko da.

Futbol txapelketa 09:00etan hasiko da, eskolako frontoian, eta aurrebenjamin mailako zazpi talde lehiatuko dira: Ermua CD, Ermua Blues, Zaldia, Durangoko Kulturala –Gorria eta Urdina–, Berriatuko, Artibai –Zurixea eta Baltza– eta horiek guztiak etxean hartuko dituen Mallabiko Futbol Taldea. Antolatzaileek azaldu dutenez, taldeak bi multzotan banatuko dituzte eta formatua egokitu egingo dute, "jokalari guztien parte-hartzea eta jokoaren dinamismoa sustatze aldera". Horrez gain, gogorarazi dute txapelketa horrek izaera ez-lehiakorra duela: "Ez da sailkapenik egongo, ezta markagailu publikorik ere; giro ludikoa sortzea da kopa honen ardatza".

Saskibaloi txapelketa pista berean jokatuko da, arratsaldez,

16:30ean hasita. Benjamin eta alebin mailetak hiru talde ari-tuko dira lehia: Elorrio KT, Saski Ermua eta AD Mallabia FT. Hiruko formatuan jokatuko dute, eta orduan ere ez da sailkapenik egongo.

Jardunaldiaren amaieran, talde guztiek garaikur berbera jasoko dute, eta parte-hartzaile bakoitzak oroigarri bana.



Iazko kopa jokatu zuen Mallabiko saskibaloi taldea. AD MALLABIA FT

Mallabiko tailerren historia ezagutzeko irteera egingo dute gaur

Mallabitarrok Egina ekimenak XIV. aldia izango du gaur, hilak 29. *Mallabia industriagune ere bada* izenburupean, herria moldatu eta eraiki duten enpresa eta tailerrak bisitatuko dituzte ekintzara batu diren hamar lagun pasak. Ibilbidean zehar, haien historia eta aspaldiko pasadizoak partekatuko dituzte hainbat herritarrek; tartean,

Felipe Zelaietak, Jose Ramon Olalde alkate ohiak eta 40 urte atzera Envasa enpresa historikoan lan egindako Mariasun Mendibek.

18:00ean abiatuko dira Petritelik Goitondora, autoz. Ibilaldiak ordubete pasatxo iraungo du, eta, ostean, 19:30ean, *kopaue* izango dute Arenteiro tabernan, Berbalagunen kontura.



Mallabia errepidetako Manufacturas GES tailerra, 1970an. ERMUKO UDALDEKO ARTXIBOA

7 Pago lasterketak 400 garaile utzi ditu Mallabian

Maiatzaren 23an, zapatua, jokatu zen Zazpi Pago Elkarteak antolatutako mendi-lasterketaren hirugarren aldia; ehunka euro banatu zituzten, eta bertako produktu-sortak jaso zituzten partaideek

Ander Gomez

Lasterketa luzean Maialen Artiach elorriarra nagusitu zen, bigarren izan zen Oihane Unzalu abadiñarra eta hirugarren Olatz Salaberria azpeitiarra. Gizonezkoetan, Irazu Aranburu mallabitarra gailendu zen eta Iñigo Pradera herrikidea eta Xabat Manzidor azpeitiarra izan zituen lagun podiumean. Irabazleek txapela, 150 euro eta bertako produktuen saskia jaso zituzten; besteek, berriz, 100 eta 50 euro eta saskia.

Laburrean beste elorriar bat izan zen emakume azkarrena, Zutoia Odriozola, Izaro Zamalloa zornotzarraren eta Oihane Alonso igorretzarraren aurretik. Gizonezkoetan Ander Jauregui durangarra nagusitu zen, eta Iker Echevarria basauritarra eta Aitor Gonzalez ermuarra sailkatu ziren ondoren. Irabazleek txapela jaso zuten, eta seiak, bertako produktuen saskia.

Horrez gain, Zazpi Pago elkarteak aparteko diru-saria zeukaten errekorra hausten zutenentzat. Jaureguik (1:14:44) Xuban Muniozuren marka

hobetu zuen (1:22:08); eta Aranburuk (2:13:42) iaz baino hiru minutu arinago bukatzea lortu zuen (2:16:48). Emakumezkoetan ezin izan zituzten Garazi Sampedrok (1:40:27) eta Nora Narbaizak (2:51:41) ezarritako markak gainditu: Odriozola 34 segundora geratu zen (1:41:01) eta Artiach, 8 segundora (2:51:49).

Baina ez zegoen azkarrena izan beharrik saria irabazteko. Lasterketa laburrean 98. postuan bukatu zuen Ander Llodio arrasatearrak parte hartzearen soilik zozketaz oparitzen zen Orbea bizikleta eraman zuen etxera. Llodioek eta lasterketan parte hartu zuten beste 400 lagunek ere produktuz betetako lasterkariaren poltsa jaso zuten: 7 Pagen kamiseta, Orbearen txapela, Mañeko pastelak, Lizagazarreko zukua eta Lurbelen galtzerdiak.

Lasterketa bukatutakoan, oirlasko-parrillak zituzten zain; askorentzat, benetako saria: mendi buelta eder baten ostean eta lasterketa bukatzeko helburua beteta, pintxo eta sagardo tragotxo eskuan lagun artean ospatzea.



Umorez egin zioten aurre beroari. PULSO



Boluntarioen lana ezinbestekoa izan zen hirugarren aldia egiteko. EMILIO JOSE CARRAL



Lekutako mendi taldeak etorri ziren, eta Hiru Txikiak Traileko lagunak ez ziren falta izan. PULSO



Gaztetxoek lasterketa propioa izan zuten, dortsal eta guzti. IRATXE URIBELARREA



Umekin helmugaratu ziren asko. J.F.



Sari-banaketa parkeko aterpean egin zuten, eta jendez bete ziren harmailak. E.C.



Irazu Aranburu, txapelarekin. V. MUGARZA



Irabazle guztiak, lasterkarien eta senideen txaloak jasotzen. VALENTIN MUGARZA MARTINEZ

Gazte Eguna eta erraldoien konpartsa, nobedade nagusi aurtengo jaietan

Jaiak uztailaren 24 arratsaldean hasiko dira, kanoikadarekin, eta uztailaren 26an amaitu, Santa Ana egunean. Dena den, aurreko egunean eta asteburuan ere jai kutsuko ekimen ugari egingo dira herrian

Egoitz Unamuno SORALUZE

Aurten, Santiago-Santa Ana jaiak berezitasun askorekin datoz. Halaxe azpimarratu zuten joan den astean Udaleko Kultur ordezkariak herriko eragileen ordezkariekin batzar aretoan egin zuten jai batzordearen bigarren bilera.

Maite Quintanilla Kultur zinegotziak esplikatu zuenez, aurten jaietako datak bereziak izango dira: kanoikada ofiziala uztailaren 24an, barikua, jaurtiko dute, eta domekan amaituko dira jaiak, Santa Ana eguneko ospakizunekin. Hori bai, aurretik, uztailaren 23an, eguna, Gazte Eguna egingo dute, Galtzagorriek antolatuta, eta aurreko asteburuan ere izango da jai giroko ekimen ugari.

Aurreko asteburua

Ofizialki jaiak hasi gabe izango diren arren, jaien aurreko asteburua bete-betea dator aurten. Izan ere, uztailaren 18an, zapatua, motorzaleen topaketa egingo dute. Egun horretan, EAE osotik etorritako motorzaleak batuko dira herrian eta egun osoko jai egingo dute: herriguneko itzulia, poteoa Latuna Bando Txarangarekin, bazkaria eta, azkenik, arratsaldean, trial erakustaldia egingo dute Plaza Berrian.

Hurrengo egunean, domeka, ere izango da zerekin gozatu. Goizean zehar, umeek, gazteek eta familiek elkarrekin jolasteko aukera izango dute, Bizijolas jolasgunean, eta eguerdian, berriz, tripa betetzeko, Soraluze Arrozak ekimenaren eskutik. Hori gutxi balitz, herriko emakumeen batukada feminista ibiliko da kalez kale, Nerea Mendiak gidatuta, eta emakumezkoen pilota eta hockey partiduak jokatuko dituzte kiroldegian.

Musika eskaintza askotarikoa

Musika eskaintzari dagokionez, estilo ugarietako taldeek joko dute. Uztailaren 23an, Gazte Egunean, Polo Opuestok joko du, Zubian, eta herriko musikariak Sagar Erreka Mix musika ikuskizuna taularatuko dute.

Uztailaren 24an, berriz, nabarmentzekoa da Debagoieneko Añube rock taldeak Plaza Zaharrean joko duen kontzertua eta punk-oi! zaleak gozaraziko dituen Streetwise taldearen emanaldia Zubian. 25ean, berriz, Los Tenampas mariatxi taldeak girotuko du zapatu gaua, eta, ostean, Fan&Go-ren erromeriaz gozatzeko aukera izango da, txosnagunean. Azkenik, Santa Ana egunean, Neomak, euskal folka eta musika elektronikoa uzartzeko dituen talde ezaguna, igoko da plazako oholtzara, jaiak amaitzeko.

Erraldoiak eta zesta-punta

Santiago Egunean, eguerdian, kaleratuko da aurtengo nobedade nagusienetako bat: Soraluzeko erraldoien konpartsa. Izan ere, zapatu eguerdian aterako dituzte kalera herriko erraldoiak, lehen aldiz, gonbidatu modura

etorriko diren Arrasateko erraldoiekin batera. Quintanillak aurreratu zuenez, erraldoiak bi izango dira, eta ekin diote konpartsa osatzeari ere.

Egun berean, ezohiko kirol ekitaldia egingo dute kiroldegian: Jai Alai zesta-punta txapelketako partidua. Azkenengo egunean, berriz, herri kirol jaialdi berezia egingo dute Plaza Berrian.

Gainerakoan, azken urteotan ohiko bihurtu diren ekitaldiak egingo dira aurten ere: areto futbol txapelketaren finala, umeentzako krosa, herri bazkaria, karta txapelketa, danborrada, zezenak, bakailao lehiaketa, presoen aldeko bazkaria, larrain dantza, zezensuzkoa eta abar.

Bestalde, aurrerago jakinaraziko dute nork edo nortzuek botako duten jai ei hasiera eman-go dien kanoikada.

Gazte Egunean, herriko musikariak Sagar Erreka Mix musika ikuskizuna taularatuko dute



Neomak taldeak jaietako azken egunean joko du, Plaza Zaharrean. NEOMAK



Herriko eragileen ordezkariak jai batzordean. E.U.

Erraldoien konpartsa osatzen

Musika eskolako eta Udaleko ordezkariak jakinarazi zuten, dagoeneko hasita daude Soraluzeko erraldoien konpartsa osatzen: "15-16 urtetik aurrerako gaztetxoak, musikariak –txistulariak eta gaiteroak–, gurasoak eta zenbait herritar etorri dira". Antolatzaileen esanetan, "konpartsan laguntzeko eta parte hartzeko modu asko daude: erraldoiekin dantza egitea, musika jotzea, kalez kaleko ibilian laguntzea...". Hala, konpartsan parte hartu edota lagundu nahi duten herritarrek "zabalik dituzte ateak". Izena emateko, Soraluze Musika Eskolara jo behar da, eta ohartarazi dute laster hasiko dituztela konpartsaaren entseguak. Aurrerago emango duten erraldoien izaeraren eta izenen berri.



**BIO INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
AUTOMATIZAZIO, INSTALAZIO ETA
MANTENIMENDU INDUSTRIALA**

BERGARA · 943 044 728

Batzoki
BAR
Asteburu eta menua,
plater konbinatuak...
Plaza Zaharra (Soraluze) Erreserbak:
638 91 15 97

MENDIZABAL
okindegia
Ogia · Prentsa · Gosariak
Astelehenetik ostegunera:
08:00 - 13:00
17:00 - 19:30
Ostiralak
08:00 - 13:00
Larunbatak
08:30 - 13:30
Kalebarren 10
Tel.: 943 75 13 99

Asigor Taberna
Terraza, kontzertuak, dardoak...
Ostiraletan pintxopotea
Gipuzkoa etorbidea 1

BOLIA
TABERNA
Pintxoak, ardoak, konbinatuak
Gazte-giroko festa

Itxi egin dute Ecenarro lentzeria-denda, eta Belarrak belar-denda ekainean itxiko dute

Belarrak dendak 25 urte egin ditu; Ecenarro denda 2024ko urrian zabaldu zuten

Ubane Madera Zangitu SORALUZE

Ekainaren amaierarako, bi saltoki gutxiago izango dira herrian; zehazki, Santa Ana kalean: batetik, bihar bertan, zapatua, itxiko dute Ecenarro lentzeria-denda; eta, bestetik, ekainaren amaiera aldera itxiko dute Belarrak belar-denda.

Lentzeria, itxita

Ecenarro lentzeria-dendari dagokionez, 2024ko urrian zabaldu zuten Santa Anako saltokia. Elgoibarko Lorea Oteiza eta Nuria Bergua koinatek zabaldu zuten; Elgoibarren Ecenarro saltokia izanda, haren izenkiea zabaldu zuten Santa Ana kalean. Orain, "tamalez", eta hainbat arrazoi tarteko, itxi egin behar izan dute Soralezuekoa.

Saltokia itxi aurretik, Lore Oteizak eskerrak eman nahi dizkie saltokira joan diren soralezuetar guztiei.

Uztailean, Eibarrera

Bestalde, Belarrak belar-dendako Naiara eta Onintza Elgeta ahizpek ekainaren amaiera aldera itxiko dute Santa Anako arkupeko saltokia. Haien kasuan, Eibarko San Juan kalean dagoen Izadi lore-denda hartuko dute segituan. "Uztailaren 1erako Izadi lore-dendan egon behar dugu. Ekainaren 24an, 25ean... ekainaren azkenetan itxiko dugu hau, dena desmuntatu eta egin beharrekoak egiteko. Ekainaren 18an Bizikaleko azoka dugu, eta ahaleginduko gara hara ateratzen belar-dendako kremak eta, Eibarko lore-denda bakarrik baita", kontatu dute Naiarak eta Onintzak.

"Itxi egin behar genuen"

Esplikatu dutenez, Soralezueko negozioa "ez zihoan ondo. Urte batzuk gindoazen eutsi eta eutsi; suertatu zaigu Eibarren erretiratu egiten dela Izadi lore-dendako andrea, eta horixe zen gure aukera. Hau itxi egin behar genuen lehenago ala geroago, ez genuen askorik iraungo; Eibarko tokatu da parean, eta huraxe da gure aukera".



Naiara eta Onintza Elgeta, dendaren kanpoko aldean, maiatzaren 22an. U.M.Z.



Ecenarro saltokia, martitzenean. U.M.Z.

Batik bat, azken urteetan igarri dute salmentetan beherakada: "Loreena asko jaitsi da. Eta belar-dendako produktuek irabazi gutxi ematen dute. Bi negozioekin batera justu-justu ibili gara orain arte, eusten, baina ja dendak ez du ematen". Diote jendeak "kanpoan erosten" duela asko. Eta jaitsiera nabarmenena pandemiaren ondoren etorri zela: "Pandemiaren ondorengo urte hartan, tira, baina gero izugarri jaitsi da". Lokal propioa ez izateak ere eragin du, noski. Gaineratu dute eurei "oso gaitza" egin behar zaiela herriko saltokia ixtea: "Hainbeste urte igaro eta gero itxi egin behar...".

25 urte Soralezuean

Izan ere, mende laurdena, 25 urte egin ditu zabalik Belarrak belar-dendak. 2001ean zabaldu

zuen, Zubi Nagusian, Tere Ariznabarretak. Harekin lanean hasi zen Naiara Elgeta, eta 2008an, hark eta Onintza Elgeta ahizpek hartu zuten belar-denda. 2019an, berriz, denda lekuz aldatu zuten, Zubi Nagusitik Santa Ana kaleko oraingo lokalera.

Belarrak belar-dendan, loreak ez ezik, nutriziorako produktuak, ekologikoak eta bestelako elikagaiak izan dituzte salgai; haien artean, batzuk inguruko baserrietakoak, Itxosteko marmelada, Itziariko arrautzak eta Eibarko ogia, adibidez.

"Eskerrak konfiantzarengatik"

Itxi aurretik, Naiara eta Onintza Elgetak eskerrak beroenak eman nahi dizkiete bezeroei, 20 urte hauetan guztietan "emandako konfiantzarengatik. Eibarren ikusiko dugu elkar beste 20 urtean".



Herritar bat obrei buruz berbetan, asteon. U.M.Z.

Piboteak kentzen dabilta, gero sistema berria ezartzeko

U.M.Z. SORALUZE

Aste honetan, udal brigadako langileak erdiguneko pibote hidraulikoak kentzen hasi dira. Zubi Nagusikoarekin hasi dira, eta, apurka-apurka, herrian dauden pibote hidrauliko guztiak kenduko dituzte.

Kamera sistema

Unai Larreategi alkateak esplikatu duenez, aurrelanak egiten ari dira, erdiguneko zirkulazioa bideratzeko ezarriko den sistema berrira begira.

Sistema berriarekin, pibote hidraulikoen partez kamerak baliatuko dira erdigunera sartzen diren autoen joan-etorria bideratzeko eta zaintzeko. Bestela

esanda, orain arte moduan, erdigunea oinezkoendako denean, baimenduek bakarrik izango dute bertatik zirkulatzeko eskubidea, eta hori kamera bitartez zainduko dute. Horretarako, kamerak jarriko dituzte erdigunerako sarrera-puntuetan.

Bi urte matxuratuta

Pibote hidraulikoak sarri matxuratuta egoten ziren, eta haietako hainbat funtzionatu barik egon dira bi urte inguruan; Santa Ana kale sarrerakoa, adibidez. Haien funtzioa betetzeko, lehenengo konoak eta gero hesiak jarri dituzte. Orain, behin betiko kenduko dute pibote hidraulikoen sistema.

Topinburun haize-neurgailu bat jarri dutela ohartarazi dute

U.M.Z. SORALUZE

Topinburu mendian, Basalgo zentral eolikoaren haize-errotetako bat eraiki nahi duten guneetako batean, haize-neurgailua ipini dute, ibilgailu, eguzki-plaka eta guzti. Hauxe ohartarazi du zentralaren kontrako Soralezueko plataformak: "Neurgailua Soralezueko terrenoetan dago, eta, jakin dugunez, oraindik ez dute baimenik eskatu Udalean. Horrekin, Arena Power enpresak beste pauso bat eman du proiektuarekin aurrera segitzeko, nahiz eta proiektuari milaka alegazio aurkeztu zitzaizkion, eta oraindik Eusko Jaurlaritzaren Industria Sailak ez duen erantzunik eman".

Gaiari buruz Udalean galde-tuta, berriz, erantzun dute "aztertzen" ari direla egoera, eta gaineratu dute "beharrezko ikusten" dituzten "eskaerak bideratuko zaizkiola dagokionari".

Batzar irekia

Bestalde, zentral eolikoaren kontrako Soralezueko plataformak jakinarazi duenez, ekainaren 10ean batzarra egingo dute. Helburua da proiektuari buruz dauden "azken berriak" konpartitzea; haize-neurgailuarena, adibidez. Eta hemendik aurrera zer egingo duten ere landu nahi dute. "Interesa duen jende guztia dago gonbidatuta". 19:00etan da hitzordua, gaztetxean.

Soraluze Futbol Taldeak klubeko 185 kideekin agurtuko du denboraldia

Elkarrekin bazkalduko dute zapatuan, eta 20:00etan udaletxeko balkoira igoko dira

Ubane Madera Zangitu SORALUZE
Soraluze Futbol Taldeko ekipoguztiek bukatu dute 2025-2026ko denboraldia. Joan den asteburuan jokatu zituzten azken partiduak, eta zapatuan egingo dute denboraldia agurtzeko ospakizuna.

Aurten, nobedade modura, Soraluze Futbol Taldea osatzen duten kide guztiak elkartuko dira denboraldia agurtzeko. Zapatuan, 14:30ean, bazkaria egingo dute, Araneko frontoian. 185 lagun inguru elkartuko dira: 158 futbolari, futbol eskolatik hasi eta nagusietarainokoak; eta zuzendaritzako kideak, delegatuak eta laguntzaileak, beste 27 lagun. Jatekoa eginda eramango dute; aukeran emanda, paella edo makarroiak izango dituzte otordu.

Udaletxeko balkoira

Topaketa borobiltzeko, bihar iluntzean udaletxeko balkoira

igoko dira, aurtengo denboraldiko emaitzak klubarekin ez ezik, herritarrekin batera ere ospatzeko. Bertan izango dira Erregional Mailako jokalariguztiak, eta ekipoko talde teknikoa ere bai. Iokin Arri-



Sorakoak gol bat ospatzen. JON AGIRRE

llaga entrenatzaileak esplikatu duenez, batez ere, eskerrak emango dituzte. Eta dei egingo dute ekitaldira bertara daitezen Soraluze Futbol Taldeko gainerako talde guztiak, eta herritarrak ere bai. "Anima daitezela taldeari agurra egin eta ospatzera", esan du Arri-llagak.

"Inoiz baino talde gehiago"

Bestalde, Sorako zuzendaritzak "balorazio oso ona" egin du 2025-2026ko denboraldian erdietsitakoaz. "Lehen taldea igo egin da eta Gorengo Mailan dauzkagun kadeteek eta gazteek mailari eutsi diote. Uste dugu Futbol Eskola bere fruituak ematen hasi dela. Gainera, inoiz baino talde gehiago daukagu eta datorren urtean gazteen bi talde egon daitezke", esan dute.

Kurutzebakarko tontorra gurutze barik dago apirilaz gero



F.A.

Dolmenen Ibilbideko Kurutzebakar tontorrean zegoen gurutzea faltan da. Hala dago apirilaren 27az geroztik, eta, F.A. herritarrak esan duenez, berdin segitzen du. Hark bidalitako argazkiak erakusten duenez, gurutzearen oinarri-harria hutsik dago; aldiz, haren ondoko buzoia bere horretan dago.

Soraluzeko palariak final-laurdenak jokatuko dituzte



Gallastegi, Gisasola, Rascon eta Atxotegi.

Gipuzkoako Herriarteko Gomazko Paletako Txapelketako kanporaketan aurrera segitzen dute Soraluze Pilota Elkarteko palariak. Joan den asteburuko hiru partidak irabazita, asteburu honetan final-laurdenekoen joaneko hiru partidak jokatuko dituzte.

Aiako palariak izango dituzte aurkari, eta, etxean, Araneko frontoian jokatuko dute, Julen Gallastegik banaka, Jurgi Rasconek eta Antxon Gisasolak binaka eta Aitor Atxotegik zazpiaren barruan. 10:00etan hasiko da kanporaketa.

Eskola kiroleko umeei Itzaropenako helduekin agurtuko dute ikasturtea

Bihar, zapatua, jolas tradizioaletan arituko dira: tokan, igel-jokoan, txapetan, txingoka...

U.M.Z. SORALUZE

Bihar, zapatua, Eskola Kirolaren 2025-2026ko ikasturte amaierako jaia egingo dute. 10:00etan SAPAn elkartu eta 11:30 ingurura arte jolasean arituko dira, baina ez edozein jolasetan, jolas tradizioaletan baizik, eta gonbidatu bereziekin.

Dominak opari

"Iaz Euskaraldia zen, eta, nobedade moduan, Pil-pilean Euskaltzaleen Elkartarekin antolatatu genuen ginkana bat, eta oso ondo irten zen. Aurten helburua da antzerako bidetik joatea. Oraingoan, Itzaropenako erretiratuekin jarri gara harremanetan, eta eurek gazteak zirenean praktikatzeko zituzten jolasak egingo dituzte neska-mutikoek zapatuan: toka, igela, txapak, kanikak, txingoka... Eta asmoa da ikasleen aitona-amonak ere



Eskola Kiroleko hainbat partaide eta begiraleak, joan den astean. U.M.Z.

gonbidatzea, guztiak elkarrekin jolas dezaten. LHlekoak, berriz, futbol zelaira joango dira jolasera; eguraldia lagun ez bada, Araneko frontoira", esplikatu du Anje Eskarzak, Soraluzeko Eskola Kirolaren kudeatzaileak.

Eskarzak gaineratu duenez, ikasturte amaiera borobiltzeko, zapatuko jolasetara doazen guztiak domina bana emango diete opari; hori 12:00etan izango da, Plaza Barrixan. Osterantzean, ikasturtean eskola kirolean ibi-

li direnei kamisetak oparitu dizkietela kontatu du hark.

Datorren urtean, merkeago

2025-2026ko ikasturtean 95 umek parte hartu dute eskola kirolean Soraluzen, Mikel Oregi, Manex Osinaga eta Urko Ruiz begiraleen gidaritzapean. Jaitsiera izan da partaidetzan, baina, eskola kirolean izan den irizpide-aldaketa tarteko, jaitsiera "txikia" dela dio Anje Eskarzak.

Kontua da 6 eta 12 urte bitarteko umek kirol klub batean izena eman ahal izateko eskola

kirolean parte hartu behar zutela, legez, kirol minorizatuak babesteko. Aurten, berriz, auzitegi baten aginduz, derrigortasun hori ezabatu, eta nahi dutenak bakarrik daude. "Eskola kirolean sinesten dutelako daude, gustura dabiltzalako... %15eko jaitsiera izan da, Gipuzkoako batez bestekoaren antzera, eta, umeen kintak jaitsi direla kontuan hartuta, jaitsiera txikia izan da. Gainera, datorren ikasturterako merkatu egingo dute kuota: nagusienendako 60 eurora eta gaztetxoendako 30 eurora".

ERROMERIXA EZOZIKO PLAZAN SORALUZE
EGUNA EKAINAK 13 ZAPATUA



Indartzen ari da zirkuarekiko jakintza eta zaletasuna, Zirkopilla Zirku Eskolaren eskutik

2025-2026ko ikasturtean 40 bat ume ibili dira zirkuaren diziplinak ikasten

Ubane Madera Zangitu SORALUZE
Aste honetan, zirku-ikuskizunak eginez agurtu dute 2025-2026ko ikasturtea Zirkopilla Zirku Eskolako ikasleek. Martitzenean eta eguenean Herri Antzokia gurasoz eta lagunez beteta zegoela, taulara igo eta oihaletan eta trapezioan akrobaziak egin, *hula hoop*-a gorputzean biraka erabili, baloi gorri erraldoiaren gainean ibili eta, oro har, Arrate Espilla zirku-irakasleak erakutsitakoak taularatu zituzten, arrakasta handiz.

Lautik berrogeira
Zirkopilla Zirku Eskolan 4 urtetik hasi eta DBHko hirugarren mailarainoko 40 bat ume ibili dira 2025-2026ko ikasturtean, eta urtetik urtera sendotuz eta indartuz doa zirkuarekiko zaletasuna eta jakintza.

Arrate Espilla Iriondo (Eibar, 1986) soraluzeartutako eibartarra da Soraluzeako zirku-irakasle. Kontatu du lau ikaslerekin abiatu zuela zirku eskola, 2019an, eta, zazpi urte geroago, 40 ikasle dituela. Aurreikuspena da

oraingo hainbat ikaslek datorren ikasturtean jarraipena ematea eta, hartara, DBH mailako ikasle gehiago izango direla. Espillak Gorputz Hezkuntzako Irakasle ikasketak ditu eta zirku diziplinak Zilipurdi zirkuaren ikasi zituen.



Zirku eskolako hainbat ikasle akrobaziak egiten, martitzeneko saioan. U.M.Z.

Okil beltz familia, berriro gurean

Okil ama bi kumeei zizarea ematen erakusten duen argazki ederra partekatu du Iñaki Oregi soraluzeartutako bergararrak. Orain dela gutxira arte inguruan apenas ikusten zen hegazti-motak gurean umatzen dihardu azken urteotan, eta horren lekukotasuna gorde du Oregik bere erretratuekin.



IÑAKI OREGI

'Pleibak' bertso-saio literarioa izango da domekan, Amurizak gidatuta

U.M.Z. SORALUZE
Domeka honetan, BertSorak antolatuta, Miren Amuriza idazlearen eta bertsolariaren *Pleibak* eleberrian oinarritutako bertso-saio literarioa izango da Soraluzen. Julio Soto eta Uxue Alberdi izango dira bertsolari eta Paule Bilbao *Arima* izango da musikari. Izan ere, uztartu egingo dituzte musika eta bat-bateko bertsolaritza. Gai-jartzaile, berriz, Miren Amuriza bera ibiliko da, haren eleberriko pasarte hautatuak irakurriz, besteak beste.

Irakurle Klubean ere bai
Miren Amurizak aste honetan Soraluzera egingo duen bigarren

bisita izango da domekako. Astelehenean, hura izan zen bi hilean behin egiten den Euskarazko Irakurle Klubeko gonbidatu, eta haren liburu *Pleibak* izan zuten berbetagai Udal Liburutegian elkartu ziren hamabost bat lagunek. Saioaren amaieran, Amurizak eta ekimenaren antolatzaileak domekako bertso-saiora gonbidatu zituen bertaraturakoak; esan zuten saio "dibertigarria" izango dela.
Hain justu, Amurizarekin egindako topaketarekin agurtu du ikasturtea Euskarazko Irakurleen Klubak. Irailean hasiko dira berriro ere bi hilean literatura kontuak partekatzen.

Helduen sariak, Leioara eta Kantabriara



EGOITZ UNAMUNO

Domekan, 32. Kaleko Margo Lehiaketa egin zuten. Helduen mailan 21 lan aurkeztu ziren eta epaimahaiak Leioako Julio Gomez Menarena aukeratu zuen, udaletxea eta Santa Ana kalea agertzen zirena. Herritarrek, berriz, Zara Garcia Saiz kantabriarraren lana aukeratu zuten, Iraolabeiti baserriaren erretratua, eta epaimahaiak hirugarren saria ere eman zion. Umeen eta gazteen mailan, berriz, inoizko partaidetzarik handiena izan zen: 185.

Txoko
Eguneko menua, plater konbinatuak, hamburgesak, ogitartekak, raziak, pizza, goxoni...
Entzuzak egiten dira
Tel. 943 75 17 98

TXURITXU GOZOTEGIA
Asteleheneetik ostiralera: 08:30-13:00 eta 16:30-20:30
Laruntzetik: 08:30-13:30
Igandetik: 08:30-14:30
Gozartak, oja, premia, pastak, bonboak...
Etxera eramateko zerbitzua
Tel. 943 75 34 47

ODRI
ATEAK ETA LEIHOAK
Mota guztietako leihoen, pertsiariek, ateak, barandilak salmenta eta konponketa
ALUMINIO ETA PVC AROZTEGIA
T. 662 234 609
Bego Etxe Kalea 2 - 20940 SORALUZE
e-mail: odrileihoak@gmail.com

ION MURGIZU BAKAIKOA PINTOREA
arreta
entzuztasuna
inbuitatza
Tel. 943 75 13 24 Mug. 652 77 70 30

laibi²⁵ urte
Mendiola Industrialdea 13
Soraluze
Tel. 943 75 12 69
www.laibi.net

IZZGUIRRE
Igeltseritza
Eraikin berriak - Kalitatezko emaitza
Erreformak - Era gurtietako igeltseritza
50 urteko esperientzia - 610 638 912

KM design
K. M. MATEA
943 74 99 85
Prof. Amilaga 5
BERGARA
Diseinua eta Fabrikazio lanak
Sukaldeak
Horma-oinarriak
Logelak
Zoruak
Ateak...
Arotzeria lanak oro har
Instalazioak

EXGA S.L.
Elektrizitatea
Iturgintza
Igeltseritza
Pintura
679 623 584
Soraluze

55 familiak parte hartu dute Eusle dinamikan

Ekinean emango dute bukatutzat Deban lehen aldiz antolatu den ekimena, baina Euslek jarraipena izango du datorren ikasturtean. Egindakoarekin pozik daude partaideak, "gurasoen hizkuntza-ohituretan eragin eta euskararen erabilera sendotzea lortu dugulako"

Izaro Aulestiarte

Gurasoek hizkuntzaren transmisioan duten garrantziaz jabetuta, Eusle dinamika abiatu dute aurten Deban. Hiru hilabetez, HH4 eta HH5 mailetako ikasleek 55 familia batu dira Zuhatzak, Zubi Guraso Elkarteak eta Luzaro ikastetxeak sustatutako ekimenera, eta antolatzaileak gustura daude orain arte egindako bidearekin.

Ekainaren 2rako iragarri duten azken bileraren atarian, baikor azaldu dituzte ateratako ondorio nagusiak. "Oro har, euskararen erabilera handitu egin da ekimenean parte hartu dutenen artean, eta, ohiturak aldatzea erraza ez den arren, gurasoek hizkuntza-ohituren gaineko kontzientzia hartzeko balio izan duela iruditzen zaigu. Gainera, euskara herrian integratzeko modua dela ikusarazi

dugu. Azken finean, euskararen alde egiteko gogoia, grina, bada-goa, eta indar horrekin pausoak ematen jarraituko dugu", adierazi du Olatz Arriolak.

Gurasoek nola, haurrek hala

Helburua argi dute: "Gurasoek hizkuntzaren transmisioan duten garrantzia azpimarratzea. Izan ere, gurasoek egiten dutena egiten dute umeei; haurrentzat, gurasoak dira eredu". Gogoeta horretatik abiatuta, aurten HH4 eta HH5 mailetako ikasleen familiei zuzenduta egon da ekimena. Hiru rol sortu dituzte: *Eusle* –une oro euskarari eusteko konpromisoa hartu dutenak–, *Salto* –euskaraz gehiago hitz egiteko konpromisoa hartu eta *Eusleak* haiengana euskaraz zuzentzea hobetsi dutenak– eta *Kaixo* –euskaraz aritzeko zailtasunak izan arren, agurrak edo esaldi labu-



Eusle dinamikako kideak, bilera batean, eta apirilean Izan Triburen baitan Santa Katalinan egindako yoga saio jendetsua. ZUHATZA

rrak euskaraz egiten saiatu direnak–. Eta, modu paraleloan, Izan Tribu dinamika ere abiatu dute, aisialdian familian euskaraz gozatzeko helburuarekin; 80

lagunetik gora batu ziren, adibidez, apirilean Santa Katalina egindako irteerara.

Pozik daude orain artekoarekin, eta Eusle eta Izan Tribu

egitasmoek jarraipena izango dute datorren ikasturtean. Aurrez, baina, Izan Triburen beste ekimen bat izango da, ekainaren 27ko Zuhatza Trailaren bueltan.



MIREIA PEREZ 'EUSLE' ROLA BETE DUEN GURASOA

"Konfiantza-eremu bat sortu du, euskara denok erabiltzeko"

"Euskara, niretzat, ama-hizkuntza da, horrek esan nahi duen guztiarekin... Kultura, historia eta nire nortasunaren parte garrantzitsu bat da. Eta Eusle ekimena oso positiboa iruditu zait, euskararen erabilerearen beherakada horrek tristatu eta arduratu egiten naudelako. Gurasoek daukagun potentzialtasunari buruzko hausnarketa egiten laguntzen du; azken finean, gurasoek euskararen erabilera soziala indartzen badugu, atzetik datozenek berdina egingo dute, gu baikara haien erreferenteak. Hori izan da azpimarragarriena. Konfiantza-eremu bat sortu du, euskara denok erabiltzeko".



KHAWLA BENKHALLAT 'KAIXO' ROLA BETE DUEN GURASOA

"Asko gustatu zitzaidan alaben ikaskideen gurasoekin egotea"

"Oso pozik nago, nire alabek euskara ikasi dutelako. Orain, etxean, euskaraz baino ez dute hitz egiten bien artean, eta horrek izugarri pozten nau. Egia esan, eskerrak hizkuntza ikasi duten dagoeneko, gu Debara iritsi berriak garela... Oso esperientzia polita izan da, eta nik ere gauza asko ikasiko ditut. Santa Katalinara egindako irteera, adibidez, oso polita izan zen, yoga egiten nuen lehen aldia zelako. Inoiz ez dut horrelako esperientziarik bizi izan, eta asko gustatu zitzaidan alaben ikaskideen gurasoekin egotea. Oso aberasgarria izan zen, eta, berriro antolatuko balute, nik errepikatuko nuke".



IÑIGO APERRIBAI 'SALTO' ROLA BETE DUEN GURASOA

"Oso ekimen ona iruditu zait; batez ere, euskara indartzeko"

"Niretzat, euskara hizkuntza berezia da, baina, hizkuntza bat denez, pertsonen artean komunikatzeko tresna izan behar du, eta horretarako indartsu egon behar du. Oso ekimen ona iruditu zait; batez ere, euskara indartzeko. Garrantzitsua da aita eta ama bakoitzak ahal den heinean euskaraz hitz egitea, seme-alabek euskaraz hitz egiteko inguru bat izan dezaten, eta balorazio positiboa egiten dut. Pertsonengan aldaketak ikusi ditut eta jendeak esfortzua egin du dinamika positiboa lortzeko. Benetan gustura egon ginen Santa Katalinan ere; helduak ez ezik, haurrak ere parte aktibo izan ziren".



OLATZ ARRIOLA EUSLE DINAMIKAKO KIDEA

"Kezka bati forma emateko modua izan da Eusle"

"Irakasle bezala, guraso bezala eta herritar bezala neukan kezka bati forma emateko modua izan da Eusle. Bileretan, adibidez, *Kaixo* roleko jendearekin egon naiz, eta oso aberasgarria izan da haien testigantzak zuzenean entzutea. Eusleren bitartez, gurasoek hizkuntzaren transmisioan duten garrantzia azpimarratu nahi izan dugu, eta Izan Tribu ekimena ere sartu dugu bere baitan, familian euskaraz ondo pasatzeko helburuarekin. Hurrengo ikasturtean ekimenarekin jarraitzea eta, ahalko bagenu, gehiago zabaltzea gustatuko litzazuke. Herritar guztiak bertan parte hartzera animatzen ditugu".



MIREN ALKORTA LUZARO ESKOLAKO IRAKASLEA

"Euskara indartzeak onura handiak dakartza"

"Gure kezka da 4 eta 5 urteko gelan gaztelaniaren presentzia handitu egiten dela ikustea, eta euskararena, aldiz, txikitu. Eta, adin-tarte hori hizkuntza ohiturak finkatzeko nahiko estrategikoa denez, ekimenean parte hartzea erabaki genuen. Onurak ikusi ditugu. Gurasoek onartu dute euskaraz gehiago aritzen direla, arreta hizkuntza-ohituretan jarri dutela, eta erronka jarri diote euren buruari. Euskara indartzeak onura handiak dakartza norbanakoarentzat: nortasuna indartzen du, mundu berri bat zabaltzen du, harremanak erraztu, euskal komunitatean integratzeko ateak ireki... Akademikoki ere ateak zabaltzen ditu".



Iturbe eta Bengoetxea –ezkerretik hirugarrena eta laugarrena, hurrenez hurren–, EAJko udal ordezkariak. DEBAKO UDALA



Alazne Txurruka alkatea, herenegun Amillagako hilerrian egindako agerraldian. N.B.A.

Zubeltzu zineman bisitan izan dira Eusko Jaurlaritzako ordezkariak

Eraikina eraberritzeko proiektuan "urratsak egiten" jarraitzen dutela berretsi dute

I.A. Joan den ostiralean, maiatzak 22, Eusko Jaurlaritzako lehen lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburu Ibone Bengoetxea eta Andoni Iturbe Kultura sailburuordea bisitan izan ziren Zubeltzu zinemaren instalazioetan. Debako Udalak laburbildu bezala, helburu bikoitza zuen bisita hark: batetik, bi erakundeen arteko harremanak estutzea; eta, bestetik, proiektuan aurrerapausoak ematen jarraitzea. Hartara, lan-kidetzarako prestutasuna berretsi, eta gogorarazi dute "Zubeltzu zinemaren proiektuak Debako antzinako zinema enblematikoa diziplina anitzeko kultura ekipamendu moderno eta irisgarri bihurtzea" ekarriko duela.

Udal Gobernuak azaldutakoaren arabera, eraikin zaharra ezagutu eta gaur egungo egoera aztertzeak aukera izan zuten bisitan. Eta,aldi berean, etorkizuneko eraldaketaren funtsezko elementuen inguruan eztabaidatzeko tartea hartu zuten. "Hori dela eta, topaketa honek eraikinaren birgaitzea eta espazio moderno, dinamiko eta asotariko baten sorrera uztartzen

dituen proiektu baten plangintzan sakontzea ahalbidetu du, udal-erriaren kultura-helburuekin bat eginez", adierazi dute.

"Urrats estrategikoa"

Udalak 2025eko urriaren 30ean egindako osoko bilkuran onartu zuen Zubeltzu zinema erostea; EAJren eta Orain Debaren aldeko botoekin eta alkatearen kalitatezko botoarekin –EH Bilduk kontra bozkatu zuen–. Eta, orduan egin bezala, zinemaren proiektua "Debako kultura indartzeko urrats estrategikoa" dela azpimarratu du, beste behin ere, Udal Gobernuak, Jaurlaritzako ordezkariak egindako bisitaren kariatara.

"Erakunde-bilera honek aukera eman digu Bengoetxea lehendakariordeari eta Iturbe sailburuordeari Zubeltzu zinemak kultura-espazio berri gisa duen potentziala erakusteko. Gobernu-taldearentzat funtsezkoa da proiektu honek bere jarduera berreskuratzea eta espazio dinamiko, parte-hartzaile eta irisgarri bihurtzea, herritar guzientzako kalitatezko kultura-espazioak eskainiz", esan du Alazne Txurruka alkatea.

Ildo beretik, Bengoetxea lehendakariordearen esanetan, Eusko Jaurlaritzak ere "strategikotzat" jotzen du Deban antzoki berri bat egotea, "arte eszenikoak eta kultura, oro har, Debabarrena eskualdean sustatzeko". Gogorarazi duenez, hain zuzen, "horretarako, 1.062.000 euroko laguntza jaso du Zubeltzuren eraberritze-proiektuak, BERPITU programaren baitan. Apustu sendoa Udalaren eta Jaurlaritzaren partetik kultura herritarrentzat eskuragarriago egiteko".

"Lanean jarraituko dugu"

Urte luzez itxita egon den arren, Zubeltzuren balio historiko eta sinbolikoaren garrantzia azpimarratu du Udal Gobernuak, eta hura eraberritzeak "bere ondarea zaintzea ahalbidetuko" duela erantsi du, "aldi berean funtzio berrietara egokituz, zinema, antzerkia, tailerrak eta kultura-jarduerak hartzeko gai izango den espazio multifuntzional bihurtuta". "Udalak Zubeltzu zinemaren proiektuan lanean jarraituko du, debarrentzat erreferentziatzeko eta kalitatezko kultura-espazio bat berreskuratze", gaineratu dute.

Hastear dira Amillagan lurperatutako gorpuzkien lehen desobiratze-lanak

Ekainaren 1ean ekingo diote gorpuzkiak desobiratu eta Artzabalera lekualdatzeko prozesuaren lehen faseari

I.A. Debako Udalak jakinarazi du astelehenean, ekainaren 1ean, hasiko direla desobiratze-lanak, Amillagako hilerrian lurperatutako gorpuzkiak Artzabalgo hilerria eramateko helburuarekin. Aurreikuspenen arabera, lanek lau bat hilabete iraungo dute.

Nolanahi ere, desobiratze eta lekualdatze prozesu osoaren lehenengo fasea baino ez da izango. Izan ere, Amillagan lurperatutako gorpuzki batzuk –zazpi orotara– bertan mantendu behar dituzte 2027ko urtariraren 31ra arte; legediaren arabera, hain zuzen, gorpu bat hobitik atera edo desobiratu ahal izateko, hura lurperatu zutenetik gutxienez bost urte igaro behar dira. Bada, zazpi gorpuzki horiek kaperaren eraikinaren ondoko espazio itxi batean gordeko dituzte, eta senitartekoak haiengana iristeko sarbide bat jarriko dute. Eta, hori ahalbidetzeko, 75 gorpuzki lekualdatuko dituzte. "Itxitura egin ostean, Osasun Sailak hilerria ixteko eta gainerako gorpuzkiak ateratzeko baimena emango du", azaldu zuen Alaz-

ne Txurruka alkatea, asteazkenean egindako agerraldian.

Modu mailakatuan ekingo dituzte desobiratzeak: kapera barruan dauden gorpuzkiekin hasiko dira; ondoren, lurperatuta daudenak desobiratu dituzte, eta, azkenik, panteoiak hustuko dituzte. Erraustsak Artzabalera eramango dituzte gero, eta hilerri berriak egun Amillagan dauden hiru panteoi ere hartuko ditu –monumentu gisa sailkatuta daude hirurak, duten balio artistikoagatik–.

"Arduraz eta gertutasunez"

Alkatea azpimarratu zuenez, "hasieratik familiekin elkarlanean eta gertutasunez" landutako prozesua izan da: "Udalarentzat prozesu garrantzitsua da hau, eta badakigu esanahi berezia duela familia askorentzat ere. Horregatik, hasieratik argi izan dugu prozesu osoa errespetuz, arduraz eta gertutasunez kudeatu behar genuela". Desobiratze- eta lekualdatze-lan guztiak "arreta eta ardura handienarekin" egingo direla ziurtatu zuen, "indarrean dauden araudi guztiak betez eta gorpuzkiei une oro tratatu duina bermatuz".

Deba
Hertz klinika

Hondartza Kalea, 20 | info@debaklinika.com
20820 Deba, Gipuzkoa | T. 943 19 28 19

ARENA BAR

Janice & Marlene
Inpandaga

Izur kalea 29, Deba | 943 19 28 31 | DEBA

Surfa eta jai giroa uztartuko ditu Zurrunbilo Ur Kirol Elkartearen 25. urteurren-festak

Egun osoko festa iragarri dute biharko, Santiago hondartzaren bueltan

Nerea Bedialauneta Alkorta

Zurrunbilo Ur Kirol Elkarteak 25 urte betetzen ditu aurten, eta urteurren seinalatu hori ospatzeko egitarau berezia prestatu du, surfa ardatz hartuta. Elkarteko kideek herritar guztiak gonbidatu dituzte antolatutako ekimenetan parte hartzera. Azpimarratu dutenez, "familian edo kuadrillan" gozatzeko moduko programa osatu dute, giro ona eta parte-hartzea sustatzeko asmoz.

Urteurrenko ospakizun nagusia bihar, maiatzak 30, izango da; adin guztietako herritarrentzako egun osoko festa prestatu dute. Eguraldiak laguntzen badu, jarduera guztiak Santiago hondartzaren inguruan egingo dira; bestela, Aldats pilotalekura lekualdatuko dituzte.

Lehen hitzordua 09:00etan hasiko da, Tag Team txapelketa herriko eta bereziarekin. Ekintzan parte hartzeko alde aurretik izena eman beharko dela gogorarazi dute; Zurrunbiloren lokalean jarri dituzte berrendak. Ohiko surf lehiaketatik harago, taldeka jokatu den saioa izango da, eta antolatzaileek nabarmendu dute



Zurrunbilo Ur Kirol Elkarteak kideak, urteurrenko festa iragartzen. ZURRUNBILO

lehia baino gehiago parte-hartzea eta giro ona sustatu nahi dituztela. Jardunak eguerdi aldera arte iraungo du, eta parte-hartzaileek luntxa izango dute Itxas Gain tabernan, indarrak berritzeko; pintxo eta trago bana emango die, doan, antolakuntzak.

Ander Tolosaren erakusketa

Goizeko jardunari jarraipena emanez, 10:00etan hasita, Ander Tolosak urteurrenerako prestatutako surf erakusketa berezia izango da ikusgai Itxas Gain

pareko aparkalekuan, eta bertan, elkartearen material berria eskuratzeko aukera ere izango dela iragarri dute –kamisetak, poltsak eta bisera–. Horrez gain, Iparrek utzitako arrapekin skate zirkuitu antzerako bat jarriko dute Itxas Gain alboan edo Miramarko plazatzon; nahi duen guztiak skatearekin duen trebezia erakutsi ahal izango du bertan.

13:30ean, Jazztabien taldearen kontzertuak girotuko du hondartza ingurua. Ondoren, 15:00etan, bazkideen bazkaria

egingo dute, Ondargain tabernan; aurreikuspenen arabera, 80 bat lagun elkartuko dira mahaiaren bueltan.

Gogorarazi dute ekimena bazkideentzat soilik dela, eta bazkarirako txartelak alde aurretik eskuratu beharko direla, antolakuntzarekin harremanetan jarrita.

Cardenas pasealekuan

Arratsaldean, festa Cardenas pasealekura eta Ondargain tabernaren inguruetara lekualdatuko da. 17:00etan hasita, Itsas-zaintza sarearen eta Gaztelekua-ren eskutik tailerrak emango dituzte haur eta gaztetxoentzat. Oreka tailerra ere egingo dute, eta aurtengo berritasun nagusietako batean parte hartzeko aukera ere izango da: surf taula mekanikoan, hain zuzen. Bertaratzen diren guztiek izango dute olatu gainean mantentzeko erronkan parte hartzeko aukera libre.

Iluntzean, zuzeneko musikak hartuko du protagonismoa: 19:30ean, Debrass Band taldeak girotuko ditu bazterrak; eta 21:00etan, Betty Larry's taldearen kontzertuarekin amaituko da eguna.

Ikastaro berezia

Urteurrenko egitarauak beste hitzordu bat ere izango du aukeran: gaur, maiatzak 29, Eskola Kiroleko surf ikastaro berezia egingo dute herriko gazteentzat.

Bihar zabalduko dute Uda Kirola programan izena emateko epea

Azken urteetan legez, eta udan kirola eta aisialdi osasungarria sustatzeko asmoz, Uda Kirola programa antolatu du Debako Udaleko Kirol Zerbitzuak. Zehaztu dutenez, egitasmoa 6 eta 16 urte bitarteko haur eta gazteei dago zuzenduta, eta parte-hartzaileek surf, bodyboard, SUP, kayak, skate surf edota xake ikastaroak egin ahal izango dituzte ekainean, uztailean eta abuztuan, hainbat txanda eta ordutegitan banatuta.

Izen-ematea bihar, maiatzak 30, zabalduko dute Deban bizi direnentzat, eta udalerritik kanpo bizi direnek, berriz, ekainaren 6tik aurrera izango dute horretarako aukera. Hain zuzen, Turismo Bulegoan edo turismoa@deba.eus helbide elektronikora idatzita egin daiteke. Ohartarazi dute pertsona bakoitzak, gehienez, lau haurren izen-ematea bideratu dezakeela eta lehentasuna izango dutela izapidea aurrez aurre egiten dutenek.

Astelehenean abiatuko dute Itziar Trail probako izen-ematea

Kopraixen egitarauaren barruan, abuztuaren 1ean jokatu da IX. Itziar Trail proba. Aurtengo hitzordua 16:00etan hasiko da, eta, antolatzaileek iragarri dutenez, astelehenean, ekainaren 1ean, zabalduko dute 13,9 kilometroko ibilbidea eta 900 metroko desnibel positiboa izango dituen mendi-lasterketan parte hartzeko epea.

Proban parte hartu nahi dutenek Internet bidez soilik eman ahaliko dute izena, kirolprobak.com webgunearen bidez. Uztailearen 30ean itxiko dute izen-ematea, gauerdian, eta, antolakuntzak gogorarazi duenez, egunean bertan ez da izango izena emateko aukerarik.

Antolatzaileek garaiz ibiltzeko dei egin dute, gehienez ere 180 lagunera mugatu baitute probarako partaide kopurua. Inskripzioa uztailearen 15a baino lehen eginez gero, 21 euro ordaindu beharko dira pertsonako; data horretatik aurrera, berriz, 25 eurokoa izango da kuota.

Aurtengo Nazioarteko Capoeira Topaketak ere arrakastatsuak izan dira



ANE LADERA OSA



ANE LADERA OSA

Senzala Euskadi taldearen ekimenez, Capoeiraren Nazioarteko Topaketak egin zituzten aurreko asteburuan. Sustatzaileen esanetan, harrera beroa izan du ekimenak, eta balorazio ona egin dute. Aurreko urteekin alderatuta, aurten parte-hartzea apalagoa izan da; batez ere, bidaiagastuen igoerak eraginda. Hala ere, topaketek

nazioarteko izaerari eutsi diote, eta 70 lagun inguru elkartu dira. Ekintza gehienak arrakastaz egin direla azpimarratu dute, eta, etorkizunera begira, dantza afrikarren eskaintza indartu nahi dute; horretarako, Garazi Pascual artista lasturtarraren eskolak abian jartzeko asmoa daukate.

Itziarko Albara ganadutegiak jarriko ditu behiak Azpeitiko errektari erakustaldian

Guztira, nafar kasta arrazako hamalau behi suhar eramango dituzte ekitaldira

Nerea Bedialauneta Alkorta ITZIAR
Datorren igandean, maiatzaren 31n, errektari uztaidunek erakustaldia egingo dute Azpeitiko zezen-plazan, eta, lehen aldiz, Itziarko Albara ganadutegiko behiek girotuko dute saioa.

Azpeitiko ekitaldia orain arte ligako txapelketaren barruan jokatu izan bada ere, dermatosi nodular gaitzaren ondorioz aurtien ezin izan dute ohiko moldean antolatu. Muga sanitarioek elite mailan ibiltzen diren Erkidegotik kanpoko ganadutegiak etortzea galarazi dute, eta, testuinguru horretan, saioa erakustaldi formatura mugatzea eta bertako haztegi bati aukera eskaintzea erabaki dute antolatzaileek. Horrela iritsi zaio Asier Albite zestoarrak eta Maddi Mendibil elgoibartarrak Endoia auzoan duten aziendari Azpeitian estreinatzeke aukera handia.

Duela ia hiru urte, 2023ko uztailean, abiatu zuten proiektua, eta, Albiteren esanetan, "gogotsu eta ilusio handiz" hartu dute aukera. Hark zehaztu duenez, zezen-munduko afizioa Azpeitira begira egoten da, eta, beraz, plaza hura "erakusleio bikaina" izango da eurentzat. "Oihartzun



Asier Albite eta Maddi Mendibil, Albara ganadutegiko kortan. ASIER ORBEA

nabarmena du zezen-munduan, eta garrantzitsua izango da egun hau guretzat".

Zortzi, errektarientzat

Ordu eta erdi inguru iraungo duen ikuskizunerako nafar kasta arrazako hamalau buru eramango dituztela aurreratu dute. Horietatik zortzi erabiliko dituzte errektari uztaidunen erakustaldian, eta beste bat ere eramango dute, ordezkot gisa. Plazaratuko dituzten buruen artean, Albitek *Beauvoir* eta

Mugalari izeneko behi suharrak nabarmendu ditu, bereziki: "Orain arte plazarik plaza ibili diren ganadutegiko behi onenetakoak dira, eta uste dugu errektarierie gauzak zail samar jarriko dizkietela".

Erakustaldiaren ondoren, 16 urtetik gorako ikusleentzat behi bolaztatuak izango dira, eta, horretarako, "beste lau larrabehi eramango ditugu, ikusleek probatu nahi badute ere; agian, beste bat ere eramango dugu, erreserba bezala".

ARGAZKI ZAHARRA

Plaza Zaharra eta Itxurrikua baserria



ALEX TURRILLAS ARANZETA
DEBAKO KULTUR ELKARTEKO KIDEA

1910eko egun euritsu batean egin zuten argazkia. Eta, horri esker, garai hartan Plaza Zaharreko ia eraikin guztiak gaur egungoen oso bestelakoak zirela ikus dezakegu. Bereziki deigarria da elizaren eta eskuineko etxeen artean dagoen eraikina. Itxurrikua hiri-baserria da. XX. mendeko 60ko hamarkadara arte, oraindik ere bazen etxeren bat herriaren erdigunean, ganaduaekin eta ukuiluekin. Azkena Iturkaleko Iriondo Zesterokua familiarena izan zen; gutako askok gogoratzen dugu, elizaren aurretik pasatzen ziren behiak ere oroitzen ditugun bezala. Eta Itxurrikua bera ere azkenetakoa izan zen.

Irudian agertzen den Itxurrikua hiri-baserri zaharra egon zen leku berean, 1922an egin zuten eraikin bat dago gaur egun. 1921eko abenduan, hain justu, bere jabeak, Telesfora Ulaciak, Plaza Zaharreko 5. zenbakian zuen etxea eraberritzeko baimena eskatu zion Udalarari. Eta Udalak baimena eman zion, "obra udal-ordenantzek agindutakoaren arabera egin dezan eta, komeni bazaio, planoan adierazitakoez gain, etxebizitzari beste solairu bat gehitu diezaien".



Lasturko Talo Egunaren balorazio positiboa egin dute antolatzaileek



IZARRAITZ BIZIRIK

Hutsik egin gabe, joan den igandean ospatu zuten Gipuzkoako V. Erroten Egunaren bueltan antolatutako Talo Eguna Lasturren, eta balorazio positiboa egin dute antolakuntza lanetan aritu diren auzotarrek. "Eguraldi beroa tokatu zitzaigun, baina herritarren parte-hartzea polita izan zen", azaldu dute. Nabarmendu dute-



IZARRAITZ BIZIRIK

nez, "harrera polita" izan zuten Izarraitz Bizirik elkarteak, Lasturko Tabernak eta Itziarko Auzo Udalak antolatutako ekitaldiek, eta interes berezia piztu zuten Antxieta Arkeologi Taldeak prestatutako azokak eta hurrei zuzendutako arkeologia tailerrak.

IRAGARKI SAILKATUAK

LANA

ESKAINITZA

Elgoibar San Lazaro egoitzarako garbitzailak behar dira, ordezkapenak egiteko. Interesatuak curriculuma utzi dezakete egoitzako harreran, edo postaz bidali: dir.elgoibar@biharko.org.

Deba-Itziar BARRENAK banatzailea behar du Deban eta Itziarren BARRENA astekaria banatzeko. Interesatuok idatzi banaketa@barrena.eus-era.

ESKAERAK

Elgoibar. Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan edo orduka. Gauez ere bai. Titulua daukat. 632 29 26 62

Elgoibar. Adinekoak zaintzeko prest nago. Pintura eta konponketa lanetan ere esperientzia daukat. Elgoibartik kanpora bidaiatzeko aukera. 603 72 70 67

Elgoibar. Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile. Titulua daukat. 631 02 01 69

Elgoibar. Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. 603 17 39 20

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUAN HARTU

Elgoibar. Etxea hartuko nuke alokairuan, Elgoibarren. Epe luzerako. 602 30 40 08

KINTOAK

Elgoibar. 1956ko kintoen bazkaria ekainaren 13an. Kalegoen plazan batuko dira, 12:30ean, argazkia ateratzeko. Luntxa Ibai Ondon, eta ondoren, bazkaria Txarridunan. Interesatuak 75 euro ordaindu behar dituzte Laboral Kutxako kontu honetan, izena eta bi abizen zehaztuta: ES15 3035 0007 20 0071 147446. Harremanetarako telefonoak: 696 45 50 24 (Antonio) / 630 28 63 63 (Be-goña)

Iragarkia jartzeko

943 744 112

sailkatuak@barrena.euswww.barrena.eus/sailkatuak

- Asteazkeneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- BARRENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.
- Merkatu txikiko iragarkiak bi astez argitaratzen ditugu.

ZORION AGURRAK



ELGOIBAR

Malen

Zorionak, Malen! Atzo 8 urte bete zenituelako. Muxu handi bat, familiakoen eta, bereziki, ahizpa Naroaren partez.



SORALUZE

Odile

Zorionak, Odile! Neska handi! Maite-maite zaitugu.



SORALUZE

Ubane

Zorionak, lubein! Segi plazentziatarron berri ematen Debarrenari eta munduari. BARRENAko eta *Pil-pilean*-eko lankideen partez.



ELGOIBAR

Ian

Gozatu asko zure egunaz, egin barre urteen truke, dantzatu, jan tarta zati handi bat eta eskatu desio bat indar handiz, Zorionak lan!



SORALUZE

Julen eta Jon

Zorionak, Julen eta Jon, 5 eta 3 urte egin dituzuelako. Familiako guztion partez.



ELGOIBAR

Anie

Zorionak, Anie, zure hirugarren urtebetetzean. Muxu potolo bat, etxeko guztion partez.



ELGOIBAR

Endika

Zorionak, Endi! 11 Urte! Jarraitu zaren bezalako izaten. Askota maite zaitugu. Etxeko partez.

Zorion-agurra jartzeko, hiru bide:

- 'Barrena.eus'-en erabiltzailea sortu eta barrena.eus/zorionagurrak helbidean sartu.
- Mezua bidali herrietako erredakzioetara edota Whatsappez 688 65 56 58 zenbakira edo e-postaz zorionagurrak@barrena.eus. Zehaztu izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta testua.
- Etorri edo deitu gure betiko egoitzetako batera.

Ekainaren 5etik aurrera
zorion agurrek
saria dute
Barrena-n!




Argitaratzen diren
zorion agurren artean
Mendaroko Galle-Tiak Fabrik-eko
produktu pertsonalizatuak
zozkatuko dira astero


Animatu eta
zoriondu ezazu
maite duzun hori!

DENBORAPASAK

HITZ GURUTZATUAK

| | | | | |
|---|-----------------------|----------------------|----------------------|--------------------------------------|
|  | B | Isurkari koloregabe | Musika nota | Burmuin |
| | ABIZENA | | Pertsone-izena | Musika nota |
| | Debabarreko mendia | | | Musika nota |
| | Zilerra (Nim.) | | | Tzuzen multzoa |
| | | (Lokal argitailerak) | | |
| | | Fluoma (Nim.) | | |
| Identifikazio Fisikoko kodea | | | Bokala | Oranika (kim.) |
| Paper zati | | | Jaentzia | Opuztak dituenak |
| UZENA | | | Pisatu | |
| Hidrogenoa (kim.) | | | Lehen hizkia | |
| | Regati hartapari | | | Kontzertaria |
| | Gipuzkoako eskualdea | | | Itat gehi bat |
| Metala bikaina | | | Debabarreko herria | Epuzki-jainko egitozaina |
| Kontzertante bikoletza | | | Pertsone izenordaina | |
| | Iodoaren leuz kimikoa | | Masa unitatea | Frantziako hiria |
| | Juan den urtean | | Sufrea (kim.) | Materia-egerra |
| Musika estiloa | | Narrastia | | Tona |
| Umore onakia | | Kazik | | Isaera, joera atzirikia |
| | | | Landare mota | Zerbit erretzen diren pertatzen dena |
| | | | Litro | |
| Goipuztaren karpoko estakia | | | | Zarata |

SUJIKO



Nola jolastu?

Denbora-pasa matematiko honen helburua lauki-sarean letik 9ra bitarteko zerbaki guztiak kokatzea da, bat ere errepikatu gabe. Zirkulu bakoitzaren inguruan dauden lau zerbakiak baturak zirkulu barruan agertzen den zerbakiaren balio bera izatea lortu behar dugu. Zorte on!

ERANTZUNAK barrena.eus/denborapasak

Barrena eskelak:
zabalkunde handiena Debabarrenean

ESKELAK JARTZEKO:
943 744 112 - barrena@barrena.eus

Bulegoak:
DEBA: Ifar kalea, 12 - 943 191 383
ELGOIBAR: Aita Agirre plaza, 3 - 943 744 112
ERMUA: Erdikokale Zeharbidea, 2 - 943 179 350
SORALUZE: Errabal, 15 - 943 751 304

ETXEBERRIA
EHORZKETA-BEILATOKIA

943 741 327 (24 orduz)
635 756 295 - 629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar
info@funerariaetxeberria.com
www.funerariaetxeberria.com

Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.
Erietxe zentruetan zerbitzuak.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN EGUERDIRAKO.
943 74 41 12 / barrena@barrena.eus

OSTIRALA 29

- **ERMUA Erakusketa: Errekalde biziberritzeko ikasleen ideiak jasotzen dituzten maketak** Ikasturte honetako Haurren Kontseilua osatzen duten Lehen Hezkuntzako 2. eta 3. mailako ikasleek Errekalde biziberritzeko ideiak jasotzen dituen erakusketa antolatu dute. Udaletxeko beheko solairuan, 09:00etatik aurrera.
- **DEBA Erakusketa: '2 zaletasun' (Juan Ignacio Aizpurua)** Erakusketa zabalik egongo da ekainaren 4ra arte. Eguna Zentroan, 10:00etatik aurrera.
- **MALLABIA LGBTIQA+ liburu interesgunea** Ekainaren 15era arte. Udal liburategian, 16:00etatik 19:00etara.
- **ELGOIBAR 'Jolasa kalera'** Atxuxiamaiak antolatuta, 0-5 urteko umeentzako. Elizpean, 16:30ean.
- **SORALUZE Odol emaleen hitzordua** Odol emaleen bi hilean behingo hitzordua odol ateratzek egiteko. Itxaropena Jubilatu Elkartean, 16:30ean.
- **ELGOIBAR Pilota Eguna** Lagunak Pilota Eskolak antolatuta. Kalegoen plazan, 17:00etan.
- **ERMUA Erakusketa: 'Gu ere bagara!'** Ines Bermejo artistak eta Julen Nafarrate kazetariak bultzatutako sormen-lana da. Helburua da Getxoko LGTBIQ+ nagusien kontatu gabeko istorioak jasotzea eta, aldi berean, ezagutu zer-nolakoak diren euren errealitatea eta bizipenak. Antolatzailea: Lagun Artea. Emakumeen Topalekuan, 18:00etan. Ekainaren 30era arte.
- **SORALUZE Emanaldia: 'Dantza: ikasturte amaiera'** Udaleko Kirol Sailak antolatutako ekintza. Herri Antzokian, 18:30ean.
- **DEBA 'Oreakariak' solasaldia.** Europako

Geoparkeen Astearen baitan, Eduardo Ogandok –EHUko fisikaria– eta Ibon Oregik –surf egokituko munduko txapelkunordea– surfaren eta orekaren arteko harremanaz hitz egingo dute. Hondartzako pasealekuan, 19:00etan.

- **MENDARO Bizi Poza txarangaren kalejira, Trinitate jaien karietara.** Mendarozabal auzoan, 19:00etan.

- **DEBA Antzerkia: 'Supituki show'** 39. Antzerki Astearen baitan antolatutako ikuskizuna. Sarrera: 6 euro. Agirre jauregiko Ispiluen gelan, 19:00etan.

- **ERMUA Errotabarri eskubaloit taldeari harrera** Errotabarriko jokariak tren turistiko batean joango dira kiroldegitik udaletxera eta 19:30ean udaletxeko balkoira aterako dira. Ostean, zaleen gunea izango da Martxoaren 8ko plazan, txosnarekin eta musikarekin.

- **DEBA Euskal presoen eta iheslarien giza eskubideen aldeko mobilizazioa** Foruen Plazan, 19:30ean.

- **SORALUZE Euskal presoen eta iheslarien giza eskubideen aldeko mobilizazioa** Sare mugimenduak deituta. Plaza Barrixan, 19:30ean.

- **ELGOIBAR Euskal presoen eta iheslarien giza eskubideen aldeko mobilizazioa** Kalegoen plazan, 20:00etan.

- **DEBA Kontzertua: Hondora taldea** Ondargain tabernan, 20:00etan.

ZAPATUA 30

- **DEBA Lourdesera erromesaldia** Debako Parrokiako kideek antolatuta. Paseo estalian, 06:00etan.
- **MENDARO Bigarren Mendi Eguna** Arno Guraso Elkartek, Lizarpe



ELGOIBAR Trinitate jaiak

ZAPATUA 30: 09:00etatik 10:00etara, XII. Kaleko Margo Lehiaketa, 18 urtetik gorakoentzat. Euskarriak Elgoibarko parrokiako arkupeetara eraman beharko dira zigilua jartzeko eta izena emateko. Antolatzailea: Egur Arte Tailerra –informazioa: 666 55 75 38–. 13:00etatik 14:00etara, XII. Kaleko Margo Lehiaketako lanak parrokiako arkupeetan entregatu beharko dira. 14:30ean, XII. Kaleko Margo Lehiaketaren sari-banaketa, parrokiako arkupeetan. 10:00etatik 14:30era, trinitateetako 23. azoka berezia, Aita Agirre plazan: herriko baserrietako produktuen salmenta. 10:00etatik 17:00etara, Elgoibarko baserrietan hazitako abereen erakusketa, Aita Agirre plazan. 12:00etan, kalitatezko produktuen dastaketa, aire zabalean hazitako Basatxerri txerrien saiheskia eta hirugiharra, Elgoibarko baserri auzoetako ordezkarien laguntzarekin. 12:00etan, Elgoibarko baserrietako sagardo-dastaketa, Zazpiki elkarteak antolatuta, Lekuederreko karpan. 18:00etatik 19:30era, Mauxitxa Txarangaren kalejira, Kalegoen plazatik hasita. 23:00etan, danborrada, Kalegoen plazan.

DOMEKA 31: 07:45ean, diana, herriko dultzaineroekin. Jarraian, sokamuturra, Saka ganadutegiaren zezenekin, 1. sektoretik hasita, 08:00etan. 3. sektorea, 08:45etik 10:30ak arte. 10:00etatik 14:30era, 31. Artisau azoka, Lekueder parkean. 11:00etan, meza, San Bartolome parrokiaren. Parrokiako Abesbatzak kantatuko du. 12:00etan, haurren danborrada. Antolatzailea: Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskola. 17:30etik 19:00etara, erraldoi, buruhandi eta zezenzikleten kalejira, Elgoibarko Dultzaineroekin batera.



MENDARO Trinitate jaiak

DOMEKA 31: Mendaroko Trinitate jaietako batzordeak antolatuta, Udalaren laguntzarekin. Trinitate basilizan eta inguruan. 10:30ean, txistularien kalejira. 12:00etan, meza nagusia: Mendaroko eta Itziarko abesbatzek parte hartuko dute. 12:45ean, herri-kirol jaialdia. Goizeder Abendibar harri-jasotzailea eta Arkaitz Etxebeste eta Ugaitz Mugertza aizkolarien arteko jokoa. Ondoren, herriko trikitilariak.

ASTELEHENA 1: Trinitate Txiki Eguna, Trinitate basiliza inguruan. 11:00etan, meza, Trinitaten. Ondoren, Mendaro ikastetxeko eskola-umeen bertso-saioa. 12:00etan, Saioa Lizarralde eta Leadro Esnaola trikitilarien saioa.

Mendi Klubak eta Udalak antolatuta. Bi ibilbide daude aukeran: Luzea egin nahi dutenak 07:00etan abiatuko dira plazatik. Motzokoak, 09:30ean.

- **DEBA Zurrumbilo Eguna** Egun osoko egitaraua: Tag Team txapelketa, *surf expo-a*, *merchandising-a*, skate librea, paella-jana, tailerrak, surf-taula mekanikoa, oreka-tailerra eta kontzertuak. 10:00etan hasita.
- **DEBA Inprobisazio tailerra** 39. Antzerki Astearen baitan antolatutako tailerra, Supituki taldearen eskutik. Agirre jauregiko Ispiluen gelan, 10:00etan. Erreserbak egiteko: geoparkea.eus.
- **ITZIAR Biotop irteera: 'Intsektuen safaria: begirada desberdin bat'** Europako Geoparkeen Astearen baitan antolatutako ekimena. Aranzadi Zientzia Elkarteko adituek gidatuko dute txangoa. Errotabarriko atsedenekuan, 10:00etan.
- **ERMUA Zumba kirol jarduera** Ermua Kirolak antolatutako doako kirol jarduera. San Pelaio parkean, 10:30ean.
- **SORALUZE Ekimena: 'Eskola kiroleko azken eguna'** Ikasturte osoan zehar eskola kirolean aritutakoek kalea kirolez eta jolasez beteko dute; ikasturte amaiera ospatzeko helburuarekin. Herrigunean eta kiroldegian, 11:00etan. 10:00-11:30era SAPAn eta 12:30ean Plaza Barrixan. Jolas tradizionalak egingo dituzte SAPAn, Itxaropena Erretiratuen Elkartekoekin. 12:00etan, dominak banatuko dituzte Plaza Barrixan.
- **DEBA Gozatzu: kurtso amaierako erakusketa** Pintura, tailla eta zeramika ikastaroetako ikasleen lanak izango dira ikusgai. Plaza Zaharrea, 12:00etan.
- **DEBA Bisita gidatua: 'Debatik Zumaiara itsasontziz'** Irteera-puntua: Anes Arrinda pasealekua (pantalana), 17:30ean. Erreserbak egiteko: geoparkea.eus.
- **MALLABIA Udaberriko kontzertua** Mendibil abesbatza eta Baionako

Buhaminak abesbatza. Elizan, 19:00etan.

- **DEBA Antzerkia: 'Adriene bergson-johnson'** 39. Antzerki Astearen baitan antolatutako ikuskizuna. Sarrera: 6 euro. Agirre jauregiko Ispiluen gelan, 19:00etan.

DOMEKA 31

- **DEBA Pala azkar txapelketa** Iruleak Emakume Pilotariak antolatuta. Txapelketa 16 urtetik gorako emakumeei zuzenduta dago. Aldats pilotalekuan, 10:00etan.
- **DEBA Inprobisazio tailerra** 39. Antzerki Astearen baitan antolatutako tailerra, Supituki taldearen eskutik. Agirre jauregiko Ispiluen gelan, 10:00etan.
- **SORALUZE Gipuzkoako Herriarteko Gomazko Paletako Txapelketako final-laurdenak** Soraluzeko Pilota Elkarteko palariak Aiako palarien kontra, hiru partida, 10:00etan hasita.
- **ITZIAR Konstelazio familiarrei buruzko tailerra** Txema Ponceren eskutik. Burugorri eraikinean, 10:00etan.
- **ITZIAR Aitzuri abesbatzaren kontzertua** Itziarko elizan, 12:30ean.
- **SORALUZE Bertso Saio literarioa: 'Pleibak'** BertSora bertso taldeak antolatuta. Itxaropenako terrazan, 13:00etan.
- **SORALUZE Soraluzeko Futbol Taldearen denboraldi amaierako ospakizuna** 14:30ean, bazkaria, Araneko frontoian –185 pertsona–. 20:00etan, udaletxeko balkoira igoera.
- **ITZIAR Antzerkia: 'Alperrak, tunanteak eta maleanteak'** 39. Antzerki Astearen baitan antolatutako ikuskizuna. Itziarko Burugorri, 19:00etan.

ASTELEHENA 1

- **SORALUZE Tailerra: 'Aurreitazio borondateak'** Nagusien Kontseiluak eta JendartEkinElkarlanean

- antolatuta. Kalebarren 8an, 10:00etan.
- **DEBA Mindfulness saioak hondartzan** Arbil Elkarte Sozialak antolatuta. Santiago hondartzan, Hiru Uhinak hotelaren parean, 10:50ean –euria bada, Arbilan lokalean egingo da.
 - **DEBA Pentsiodunen mobilizazioa** Foruen Plazan, 12:00etan.
 - **ELGOIBAR Ikastaroa: Android gailuak erabiltzen ikasteko** Adinekoei zuzenduta. 16:00etan. Ekainaren 10era arte.
 - **ELGOIBAR 'Emakumeak eta artea: Ane Mendieta'** Ele bitan. Lilan, 17:30ean.
 - **SORALUZE Erakusketa: Argazki Rallyak 1987-2008** Kontrargi argazkilaritza kolektiboak Soralezeko Udalarekin elkarlanean antolatuta. Erakusketa aretoan, 18:30etik 20:00etara.

- **DEBA Adimen artifizialari buruzko tailerra – oinarriko maila**– Arbil Elkarte Sozialaren ekimenez. Mari Piris Elkarmediako kideak gidatuko ditu saioak. Arbil elkartean, 15:00etan.
- **MENDARO kontzertua.** Ameikutz musika eskolako piano, biolin eta gitarra ikasleen kontzertua, San Agustin aretoan, 19:00etan.
- **DEBA Flauta ikasleen emanaldia** Agirre jauregiko Ispiluen gelan, 19:00etan.
- **ERMUA 'Book Club' ingeleseko irakurketa kluba** Udal Liburutegian, 19:00etan.
- **DEBA 'Karpeta urdinak' dokumentalaren proiektzioa eta solasaldia** *Karpeta urdinak* torturari buruzko dokumentalaren emanaldia eta solasaldia Ander Iriarte zuzendariarekin. Kultur Elkartean, 19:00etan.

ASTEARTEA 2

- **ELGOIBAR Zaintzari eta etxez etxeko lanei buruzko aholkularitza** Saioa Merlin Medinak emango du. Txanda hartzeko: 688 64 09 83 / elgoibarzaintza@gmail.com. Lilan, 10:00etan.

ASTEAZKENA 3

- **SORALUZE Nagusien Kontseilua** Nagusien Kontseilua hileroko bilera egiteko bilduko da. Kalebarren 8an, 10:00etan.
- **ERMUA Ermua ezagutzen (Berbalagunak)** Herrian zehar ibilbide gidatua. Patxi plazatik irtenda, 13:30ean.



DEBA Zuhatzako bazkideen batzar orokorra

OSTIRALA 5: Kultur Elkartean, 19:00etan.

- Honako hauek izango dira batzarrean jorratuko diren gaiak:
1. 2025eko kudeaketaren eta diru-kontuen irakurketa eta, hala badagokio, onarpena.
 2. 2026ko aurrekontuaren irakurketa eta, hala badagokio, onarpena.
 3. Egindako jardueren eta etorkizunerako aurreikuspenen aurkezpena.
 4. Zuzendaritza Batzordeko karguen berritzea.
 5. Eskariak eta galderak.



MALLABIA 23. Biharko Izarrak txapelketaren finalaurrekoak

OSTEGUNA 4: Malle Euskal pilota klubak antolatuta, 23. Biharko Izarrak txapelketaren finalaurrekoak jokatuko dira herriko frontoian, 17:00etan.

- **SORALUZE Ziba erakustaldi eta lehiaketa** Frontoian, 18:00etan.
- **SORALUZE 'Vidas ejemplares: algunos malhechores, fechorias y delinquentes de Soraluze'** Hitzaldia Itxaropena elkartean, 17:00etan.
- **MENDARO Frontenis txapelketako partiduak** Gazte Asanbladak antolatuta. Frontoian, 18:00etatik aurrera.

OSTEGUNA 4

- **DEBA Hitzaldia: 'Immigrazioa: nola sortzen den eta nola kudeatu migrazio mugimenduak'** Arbil Elkarte Sozialak antolatuta. Xabier Aierdi Urraza Begirune fundazioko presidenteak emango du. Kultur Elkartean, 11:00etan.
- **MALLABIA Hitzaldia: 'Proliferación de líneas de alta tensión. Posición del Ayuntamiento'** Gaztelera. Kontzejuzarran, 18:00etan.
- **MENDARO Frontenis txapelketako partiduak** Gazte Asanbladak antolatuta. Frontoian, 18:00etatik aurrera.

OSTIRALA 5

- **SORALUZE Tailerra: 'Kontsumo jasangarria'** Soralezeko Nagusien Kontseiluak Kontsumobiderek

elkarlanean antolatuta. Pertsona nagusiei zuzenduta. Kalebarren 8an, 10:00etan.

- **MALLABIA Ander Martinen oroimenezko I. frontenis mistoa** AD Mallabia FT eta Pelota Eskolak antolatuta. Herriko frontoian, 18:30ean.
- **MENDARO Mendaroko Plaza auzoari buruzko ikus-entzunezkoa** Udaletxeko udalbatza-aretoan, 18:30ean..
- **ERMUA 'Le salon des mots' frantseseko irakurketa kluba** Udal Liburutegian, 19:00etan.
- **ELGOIBAR Euskal dantzakoen ikasturte amaierako jaialdia** Kalegoen plazan, 19:00etan.
- **ERMUA Txindurri Eguna** Patxangoi elektrotzaranga. Kalean zehar, 20:00etan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

29 BARIKUA **Fernandez / H. Burgoa / A. M. Baz**

30 ZAPATUA **Yudego / H. Burgoa / M. Alves / *I. Ugarte**

31 DOMEKA **Yudego / H. Burgoa / M. Alves**

1 ASTELEHENA **Oruesagasti / Lasuen-Elezgaray / I. Lecumberri**

2 MARTITZENA **Barrenetxea / Lasuen-Elezgaray / A. Alcalá**

3 EGUAZTENA **Soto / Lasuen-Elezgaray / I. Ugarte**

4 EGUENA **Garitaonandia / Lasuen-Elezgaray / A. M. Baz**

5 BARIKUA **Arriola / L. Apraiz / M. Alves**

*09:00-13:30

2026ko botika ordutegiak, astelehenetik ostiralera:

Deba: 09:00-13:45 / 16:30-19:30

Elgoibar-Mendaro-Soraluze: 09:00-13:00 / 16:00-20:00

Ermua-Mallabia: 09:00-13:30 / 16:30-20:00

Mutriku: 09:00-13:30 / 16:45-20:00

Itziaroko botikina: 09:00-12:30

GUARDIA ORDUTEGIAK

Egunez: 09:00-22:00

Gauetz: 22:00-09:00

Eibarren urte guztian, egunero: Elortza (Juan Gisasola, 18-Eibar. 943 20 61 00)

Larunbatak:

Elgoibar-Mendaro-Soraluze: 09:00-14:00

Deba-Mutriku: 09:30-13:00

Ermua-Mallabia: 09:00-13:30

Igandeak eta jaiegunak: Deba-Mutriku: 11:00-13:00

FARMAZIAK

DEBA A. ZALDUEGI: Lersundi, 20 - 669 26 22 01

DEBA H. BURGOA: Astillero, 2 - 667 33 88 90

ELGOIBAR ARRIOLA: Santa Ana, 1 - 943 74 01 40

ELGOIBAR BARRENETXEA: Errosario, 26 - 943 74 12 77

ELGOIBAR GARITAONANDIA: Uparitzaga, 5 - 943 74 11 77

ELGOIBAR YUDEGO: San Frantzisko, 18 - 943 74 12 93

ERMUA A.M. BAZ: Zearkale 2 - 943 03 17 03

ERMUA M. ALVES: Gipuzkoa etorbidea, 46 - 943 17 26 66

ERMUA A. ALCALA: Zubiaurre, 29 - 943 17 17 54

ERMUA I. LECUMBERRI: Zubiaurre, 9 - 943 17 00 97

ERMUA M.I. UGARTE: Goienkale, 11 - 943 17 05 26

MALLABIA E. ARRONATEGI: Mallazpi z/g - 943 17 24 14

MENDARO FERNANDEZ: Herriko Enparantza, 4 Garagartza - 943 75 61 42

MUTRIKU LASUEN-ELEZGARAY: Txurruka Tenienteak, 3 - 626 61 13 92

MUTRIKU L. APRAIZ: Erdiko kalea, 5 - 630 05 50 97

SORALUZE SOTO: Rekalde, 1 - 943 75 16 38

SORALUZE ORUESAGASTI: Kalebarren, 9 - 943 75 13 84

ZINEMA

ELGOIBAR

HERRIKO ANTZOKIA

'Michael'

Ostirala, 29: 19:00

Larunbata, 30: 19:00, 22:15

Igandea, 31: 19:00

Astelehena, 1: 21:00

ERMUA

ERMUA ANTZOKIA

'Zona 3'

Larunbata, 30: 19:30

Astelehena, 1: 20:30

'Los justos'

Larunbata, 30: 22:00

Igandea, 31: 19:30

'Fleak'

Igandea, 31: 17:00

DEBA

KULTUR ELKARTEA

'Crossing'

Igandea, 31: 19:00

EIBAR

COLISEO ANTZOKIA

'Michael'

Larunbata, 30: 17:00, 19:30,

22:30.

Igandea, 31: 17:00, 20:00.

Astelehena, 1: 19:30.

'Love Me Tender'

Larunbata, 30: 19:30, 22:30.

Igandea, 31: 17:00, 20:00.

Astelehena, 1: 19:30.

'La Chica del Coro'

Larunbata, 30: 19:45, 22:30.

Igandea, 31: 20:00.

Astelehena, 1: 19:30.

'Mortal Kombat II' (Euskaraz)

Larunbata, 30: 17:00.

Igandea, 31: 20:00.

'Fleak' (Euskaraz)

Larunbata, 30: 17:00.

Igandea, 31: 17:00.

AZKEN BERBA

Emakumeen kriseilua



AMATIÑO

Hirurogeita bi urte dira Joxe Azurmendi pentsalariak idatzi zuela: "Neskatxek ez dute euskaraz hitz egin nahi...". Gure gaztaroan neskek mutilek baino sarriago jotzen zuten erdarara. Orain aldrebes da. Neskek mutilek baino samurrago hitz egiten dute euskaraz.

Azurmendiren iritziz, emakumeek gizonezkoek baino errazago islatzen dituzte gizartearen dauden balioak eta neskek garaiko giroaren termometroa baino ez ziren. Neskek ez zuten euskaraz hitz egiten, euskarak ez omen zuelako orduan behar besteko baliorik.

Sei hamarkada geroago, giroa erabat aldatu da. Emakumeen komunikazio-ahalmena eta enpatia gero eta gehiago ari da euskaraz nabarmentzen.

Euskararen osasuna, emakumeen euskaltzaleasuna eta gizartearen euskal balorazioa eskutik doaz. Batek daki euskarak aurrera egin ote duen neskek euskaltzaletu direlako ala neskek euskaltzaletu diren gizarteak euskara baliotu duelako. Baina emakumeak eta euskara elkarrekin doaz. Orain 60 urte bezala. Orduan, euskararen kalterako; orain, ostera, mesedetan.

BUKATZEKO

Kukua kantari dabil inguruan

Zenbat esaera, ipuin eta uste zabaldu diren kukuaren inguruan; Joseba Idigorasek sortutako kantua dakargu gaur hona, kukuak alde egin aurretik



Kukua, atsedean hartzen. JUANKAR ANDRES



Kukua, hegialak zabal, hegan. JUANKAR ANDRES

Estibalitz Gonzalez ERMUA

Hor ari da egunotan kuku kantaria, bere ku-ku bakan horiekin basoetako bazterrak alaitzen. Entzun arren gertutik ikusteko aukerarik izan ez dugunontzat, Juankar Andres mallabitarraren argazki-kamerak oparitutako digu haren irudia eta Joseba Idigoras ermuarrak sortutako kantua udaberriko bisitari hau hobeto ezagutzeko aukera eskainiko.

Hegazti gutxi izango dute hain kantu ezaguterraza, gutxi munduko hizkuntzetan hain izen berdintsua: *cucut, kuckuck, cuculo...* Espero ez eta udaberriaren bozeramaile modura ku-ku eta ku-ku aritzen denean barrenak pozten dizkigu, negua atzean utzi eta eguraldi epelagoaren iragarlea ere badelako. Entzun erruz, baina ikusi deus. Ezkutuan, kukuka jolasten ibiltzea du gustuko, baina noizean behin zuhaitz

adartxoren baten gainean jarri eta argazki ederrak eskaintzea ere bai, Juankar Andresen naturalista pazientziarentzat oparirik ederrena.

Esaera herrikoia da Andramari Martikorako, martxoaren 25erako, agertzen ez bada, onrak egiteko, hil den seinale, eta, uste denez, sasoi horretan pasatzen da Erromako zubitik ere. Ondo zabaldua dago baita kukua estreinakoz entzuten denean dirua patrikan izanez gero urte guztian ez dela haren faltarik izango.

Afrikatik bueltan dator eta laster ekingo dio iparralderako bere bidaiari. Uste barik frogatuta dago gustuko duela beste txori batzuen habian ipintzea arrautza, txantxangorri txikiaren arrautza nimitsoen artean XL tamainako itzel bat. Ematen du *jet lag*-aren nekea dela edo presaketaren gorabeherak direla

bere kumeentzako txoko epel bat egiteko astirik barik ibiltzen dela.

Beste txori espezie bateko familia berria izango du kukuaren kumeak jaiotzen den unetik eta ahaleginak eta bat egingo ditu janariaren eskusibitatea bereganatzeko seme bakar izateko: anaiordeen arrautzak habiatik botatzea lortzen ez badu, haiek oskola apurtu ostean bultzatuko ditu etxearen epeltasunetik kanpora, jaioberrien txio-txioen erruki barik.

Herri jakinduria eta sinesmenak, zientziak frogatutakoekin batera tartekatuz idatzi zuen Joseba Idigorasek *Tararai kuku* kantua. Musika asmatu zion gerora, eta 1987an haren alaba Miren Begok Euskal Herriko Kantu Txapelketan aurkeztu zuen; Bizkaiko txapelkun geratu zen aitaren abestiari esker. Au-

dioan alabaren ahotsa kantari eta hementxe hitzak, harekin batera *danok kantatu dagigun... aprilla eta maiatzian.*

Tararai kuku tararai kuku kantatzen dau arbola gañian, tararai kuku tararai kuku aprilla eta maiatzian.

Erromako zubitxik Andra Mari egunian, kukua pasau ei zan kantatzeko ustian. Baita baimena eskatu San Pedron aurrian, baiña ezetz esan eutsan bertan kantau artian.

Tararai kuku tararai kuku honek ez dau nahi lanik egitea, tararai kuku tararai kuku nahiago du arbolan kantatzia. Kukuak egin eta amillotx batek jan, haixe bere kukuaren zoritxarra bazan.

Kukua bera ere alper haundi bat zan txantxangorri gixajuari umia erain otzan.

Tararai kuku tararai kuku nik ez dot nahi eskolara juatia, tararai kuku tararai kuku ez dot nahi ezer ikastia.

Ikaste ez daben umiak kuku eiten dira, kukua ez izateko eskolara bira. Hamen amaitzen dira kukuaren kondairak ta danok kantatu dagigun.

Abestiaren hitzak:
Joseba Idigoras.



Kantua entzuteko, eskaneatu QR kode hau.



Batu zaituz Tokikom Ligako Barrena taldera eta parte hartu asteroko zozketan!




2. asteko saritua: Alazne Fernandez (Soraluze)

Saria: 'Norbere mundu intimo' umorezko ikuskizunerako bi sarrera